

Altsasukoa Auzitegi Nazionalak epaituko du

>>3

GUaiXe.eUS



Iturmendik Parapente Eguna hartuko du bihar



Kirolak >> 13

Etxarri Aranazko lau erraldoi berriak jendaurrean aurkeztuko dituzte bihar eguerdian, plazan. Herriko pertsonaietan oinarrituta daude



Sakanerria >> 6



Iturraskarriko arduradunak, hura sustatzen duten udal ordezkariak, mendi elkartetakoak, mendi lasterketako antolatzaileak eta mendizaleak aurkezpenean. UTZITAKOIA

Iturraskarriren bide eskaintza >>5



Elikagai Bankuaren aldeko jaki bilketa

>>8



Tenis Rubor txapelketak sariak banatu ditu

>>13



Arbizuko festak iragartzeko kartel lehiaketa martxan

>>15

Sakanaoptika
 Travesia Intxostia 10 • 31800 Altsasu
 T.: 948 563 124 • www.optikasakana.com

2x1

Betaurrekoak progresiboak eta eguskitako graduatuak barne

• Uztailak 31ra arteko eskaintza Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin •

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
ES 56 3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Eki Leiza Ruiz de Alegria
ZORIONAK EKI!!!
lehen urtea beteta onez gero!!!

Bazkideek deskontua

Bakarra: **4,00€**

Bazkideak: **3,50€**

Z, la ciudad perdida. Garagarriaren 8an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Mendi irteerak

Ahuntztxera. Garagarriaren 4an, igandean, 9:00etan Etxarri Aranazko plazatik. **Udaberri eta Larrañeta. Finalista.**

Bizikleta irteerak

VII. Sakana-Burunda. Garagarriaren 3an, larunbatean, 8:00etan eta 8:30ean Altsasuko Foru plazatik. **Barranka txirindulari taldea.**

Altsasu-Xabier (125 km). Garagarriaren 3an, larunbatean, 8:00etan Altsasuko Baratzeko bideko lokomotoratik. **Izena eman.**

XXII. Gurutzetako zeharkaldia (50 km). Garagarriaren 4an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Itziar Nazabal arte eskola. Garagarriaren 4ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean.

Koldo Arnanz arte eskola. Garagarriaren 5etik 18ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean.

Literatura

Ibon Martinekin Zugarramurdira. Garagarriaren 4an, domekan, Altsasutik. *El último akelarre* liburua kokalekuak ezagutzera.

Tras la pared. Garagarriaren 8an, ostegunean, 18:00etan Irurtzungo liburutegian Juan Manuel Esteban idazlearekin hizketaldia. **Irakurle taldea.**

Ezkil (Miren Gorrotxategi). Garagarriaren 8an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. **Etxarriko irakurle taldea.**

Azokak

2. eskuko azoka. Garagarriaren 4an, domekan, 10:00etatik 14:00etara Olatzagutiko San Migel plazan.

Bestelakoak

Sakana parapente eguna. Garagarriaren 3an, larunbatean, 9:00etatik aurrera Iturmendin. **Baiza taldea.**

Euskal festa eta 10. urteurrena. Garagarriaren 3an, larunbatean, 11:00etatik aurrera Etxarri Aranazten.

Etxarriko erraldoien aurkezpena. Garagarriaren 3an, larunbatean, 12:00etatik 14:30era Etxarri Aranazko plazan.

Iñigo Aritza ikastolaren festa. Garagarriaren 3an, larunbatean, 12:00etatik aurrera Urdiainen.

Agurtze festa: karaokea, musika, artea, afora. Garagarriaren 3an, larunbatean, 17:00etatik 00:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Hatorbxu Rock batzarra. Garagarriaren 6an, asteartean, 19:00etan Lakuntzako udaletxe batzar gelan.

Deialdiak

Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da. Maiatzaren 26an, ostiralean, 19:00etan Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

Altsasukoak aske. Maiatzaren 28an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko udaletxe parean.

Sotoko espetxera gazte martxa. Garagarriaren 3an, larunbatean, 6:30ean Altsasutik.

Hautetsien adierazpena eta bideoaren aurkezpena. Garagarriaren 4an, domekan, 12:30ean Olatzagutiko kultur etxean. **Gure Esku Dago.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 26an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uhartea Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 28an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Utzi bakean Venezuela. Euskal Herria iraultza boliviarrarekin! Garagarriaren 8an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko udaletxe aurrean. **Askapena.**

>> Etxarri Aranatz

Irakurle taldeak sasoia despeditzera

Miren Gorrotxategi Azkuneraren *33 ezki* liburuaekin despedituko da Etxarri Aranazko irakurle taldearen aurtengo sasoia. Agustin Zubikarai saria irabazitako eleberrri beltza da Gorrotxategirena. Lurra lantzen ari zela, Ferminiek hilotza aurkeztu du baserri ondoan. Semeari deitu, harrek andre-gai ohi arkeologoari... hezurdura desagertua, hildako gehiago eta gero eta ilunagoa den misterioa. Liburua irakurri eta iritziak partekatu nahi dutenek ostegunean, 19:00etan, Etxarri Aranazko liburutegian dute hitzordua.

>> Altsasu

Literatura bidezko bidaia Zugarramurdira

Horixe eskaini die Altsasuko Arkatz liburu-dendak bere bezeroei: Ibon Martinen *El último akelarre* liburua irakurri ondoren bertan agertzen diren parajeak ezagutzea. Eleberria Bilbon geratutako errituzko hilketa batek abiarazten du. Gertaerak Zugarramurdira eramanen ditu ikerlariak. Eta haien arrastoen atzetik ibiliko dira domekan Altsasutik abiatzen direnak. *La fábrica de las sombras* liburua erekin Arkatzek eta Martinek Orbaizetara eraman zituzten eta aurretik *Faro del silencio*-rekin Pasaiara.

Garagarri

2-8

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

The Guilty Brigade eta Puraposse. Garagarriaren 2an, ostiralean, 23:00etan Altsasuko plazan.

Otadiako ermitaren aldeko kontzertua. Garagarriaren 3an, larunbatean, 20:45ean Altsasuko elizan.

Altxatu eta Zopilotes Txirriak. Garagarriaren 3an, larunbatean, 23:00etan Etxarri Aranazko plazan.

Zintz, La Inkilina, Unnamables eta Dentera. Garagarriaren 3an, larunbatean, 23:30ean Iturmendiko plazan.

Di sei opera band. Garagarriaren 4an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan.

Antzerkia

Urtua, leyenda de luz y niebla. Garagarriaren 3an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Zarrapastra teatro.**

Invisibles. Garagarriaren 4an, domekan, 19:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Trapalgán teatro.**

Zirkua

Zirku erakustaldia. Garagarriaren 5ean, astelehenean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean.

Ikuskizuna

Musika eta Dantza eskolako ikasturte akaberako emanaldia. Garagarriaren 5ean, astelehenean, 19:00etan Altsasuko kultur guneko zabalgunean.

Bideo emanaldia

Altsasuko GEDen bideo aurkezpena. Garagarriaren 2an, ostiralean, 19:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **Gure Esku Dago.**

Dokumentala

Just people. Garagarriaren 2an, ostiralean, 19:00etan Olatzagutiko kultur etxean. Ondoren CEAR eta Help-Navarrakoekin solasaldia.

Zinema

Un italiano en Noruega. Garagarriaren 2an, ostiralean, 22:00etan eta garagarriaren 4an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean
Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Eneida

Gaurko gaiak:

- Urdiaingo aurrekontuez alkatearekin.
- Gorka Izagirri ongi etorria Ziordian.
- Aitana De Miguelekin Errekaleorrez.

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

HERRI SARRERETATIK SEXU ERASOEN KONTRA:
Etxarri Aranatzen ez da eraso sexistarik onartzen.
Hori irakur daiteke Etxarri Aranazko Udalak herri sarreretan jarri dituen kartel berrietan.

Ezkaatza >>

>> Altsasu

Gazte martxa Sotoko espetxera



Adur, Oihan eta Jokinen askatasuna aldarrikatu eta haiei elkartasuna adierazteko, Madrilgo Soto del Real kartzelara martxa antolatu dute Ikasle Abertzaleak, Ernaik eta Altsasuko Gazte Asanbladak. Bihar, 6:30ean, 2 autobus abiatuko dira Madrilerantz. Espetxearen kanpoko aldetik presoek musika eta animo oihiak helarazi nahi dizkiete. Gainera, prestatutako egitarauan musika, dantzak, bazkariak, giroa eta bestelakoak izanen direla iragarri dute.

Ferietako liskarragatik preso dauden altsasuarrak elkartasuna adierazteko kartzelara antolatutako hirugarren martxa da biharkoa. Abenduaren 3an Altsasuko Gazte Asanbladak eta Indar Gorrik antolatu zuen, baina ezin izan zuten aurreikusitako bete. Herri-asanbladak antolatutako izan zen hurrena, ilbeltzaren 28an.

Defentsaren auzia Iruñera ekartzeko eskaera baztertu eta Gorenak fiskaltzaren iritzia bere egin du

Espainiako Auzitegi Gorenak ferietako liskarrean terrorismo delitua ikusi du eta auzia Espainiako Auzitegia Nazionalaren 3. Instrukzio Epaitegiaren esku utzi du. Horretarako Zigor Kodearen 573.1 artikuluan oinarritzen da Gorenak. Artikulu horrek terrorismo delituzat jotzen ditu "bizitzaren edo osotasun fisikoaren kontrako edozein delitu larri" eta haien artean daude "botere publikoak zerbait egitera edo ez egitera behartzea eta populazioan edo haren zati batean terrore egoera sortzea".

Gorenako epaileek diotenez, "delituaren larritasuna ezin da momentuz baztertu, agenteetako batek jasandako lesioak tarteko". Gaineratzen dutenez, Zigor Kodeko 573.1 artikuluan jasotako helburuen "zantzuak ikus daitezke hasiera batean, Estatuko Segurtasun Gorpu eta Indarretako kideen eta familien artean terrore eta segurtasun eza sortu eta aipatu lurraldeak (Hego Euskal Herria) uzteko jokabideen markoan izan baitziren gertarak. Ezin da ere baztertu gertae-

Espainiako Auzitegi Nazionalak epaituko ditu altsasuarrak



Instrukzioa etenda

Espainiako Auzitegi Gorenak epaitegien kompetentzia auzia argitu bitartean auziaren tramitazioa geldirik egon behar zuen Espainiako Auzitegi Nazionalan, Baina astelehenean agindu ziotenera arte ez zen

hala izan.

Altsasuko Gurasoek herenegun Iruñean adierazi zuten, "justizian sinistu nahi dugulako, gogoz desiratzen dugu Espainiako Auzitegi Gorenak ordenajartzea eta Altsasuko auzia birbideratzea instrukzioa Nafarroara ekarri. Instrukzioa Nafarroako

auzitegian hasi zen eta ez zen inoiz handik atera behar". Atzera ere, "proportzionaltasuna, justizia eta ekitatearen printzipioak nagusitzea" aldarrikatu zuten. Aldarrikapen bera eta preso dauden hiru gazteen askatasuna aldarrikatu dute, astero bezala, gaur, 19:00etan Altsasun.

rek emozio egoera hori sortzea helburu zuela".

Gorenako epaileek, polizia txostenak kontuan hartuta, azaltzen

du "talde batek egindako erasoan parte hartu zutenetako baten bat segurtasun indarretako kideak Nafarroatik eta Euskal Autonomia

Erkidegotik protesta, presio eta zirikatzearen bidez kanporatze-ko erakundeekin erlazionatzeko zantzuak" daudela.

Landa-taxiak, zerbitzu anitza Sakanan

Sakanako landa taxiak garraioa eremu guztiara eramaten dute. Mugikortasun arazo larrienak dituzten landa-eremuko herritarrei zuzendutako garraio zerbitzua da. Medikua joan edo herri gunean erosketaren bat egin nahi duten herritarrek, xamurrago, eta autoz ekarriko dituen etxeko edo lagun baten zain egon gabe, bere kabuz mugitzeko aukera dute. Enpresa bidaia erosoak egiteko auke-

ra, aireportura bertara edo tren geltokietara inogerturatu zaituztenak. Baita egun-pasa joan nahi duen koadrilla edo familiendako modu erosoan izan daiteke. Jarraian Sakanan bertan dugun eskaintzaren berri emango dizugu:



Taxi
Jose Iturralde
629 42 80 25
9 lagunendako Taxia · Irurtzun
taxijoseiturralde@gmail.com
www.taxijoseiturralde.com

TAXI
9 PLAZAK
DVD
24 ORDUKO ZERBITZUA

Jon Mendia
679 622 107
Altsasu (Nafarroa)

Oskar Lasa
ETXARRI ARANATZ

TAXI
ZERBITZUA
607 669 798

PATXI ZELAIA
630 103 351
BAKAIKU

8 PLAZATAKO TAXIA



Aingeru Mikeo

Nafar bandera

astekoa

Bazen garaia! Azkenean, herri-talde bat nafar banderaren defentsan. Bihar, ekainaren 3an, manifestaldia. Denagure banderagatik, dena Nafarroagatik, horixe baita gure batasuna eta gure aniztasunaren ikurra. Sinboloen legea bertan behera utzita, Ikurriña jarri ahal izateko, gure Banderari laidoa edo

iraina. Nafar identitatea kamustu Euskadiri merke saltzeko. Izan ere, ez dira fidagarriak nazionalistak. Gogoratu, bestela, Gipuzkoako armarririk berriki kendutako kanoiak, Belaten lapurtuak, Nafarroa birkonkistatzeko gudarosteari lapurtuak. Edo, hain kuttuna duten santua eta patroia, Inazio

Loiolakoa, Nafarroako konkistagerransutsuki borrokatuzena Iruñeari setioa jartzen eta hantxe larriki zauritua. Edo, Bidasoako eskualdea Nafarroari 1200. urtean erauzia (Irun, Lezo, Oiartzun, Errenteria eta Pasaia Donibane), XIX. mendean ere Nafarroara itzultzeko saiakera sendoa egindakoa.

Zuzenduko aldituzte laido horiek? Kanoiak itzuliz, Inazio Loiolakoa pertsona 'nongrata' izendatuz, eta Bidasoarentzat Erabakitze Eskubidea bermatuz.

Tamaina horretako laidoen artean, zer garrantzia dute CANen auzian ke bihurtutako mila berrehun milioi euroek? Edo zor

publikoaren hiru mila bostehun milioiek? Edo itzaleko autobideengatik gainetik ordaindu beharreko zortzietan milioi euroek (eraikitze prezioa hirukoiztuz)? Edo Nafarroako udaletan espainiar bandera jarri behar izateak, ez nazionalistek eta ez errepublikazaleek, onartzen ez badute ere? Edo, beste hainbat kontu txiki?

Pikutara! Hantxe elkartukodira nafarron ekonomia eta demokrazia itotzen duten putreak Nafarroako banderaren azpian mozorroturik eta bihotzean piperpotoaren koloreak habiaratuta.

barrutik kanpora

Bidaiak online

Garaiak aldatzen dira, gero eta jende gehiagok kontratatzen ditu bidaiak Internet bidez. Izan ere, online egindako erosketen ia erdiak bidaiekin lotuta daude: hegaldien kontratazioa, hotelena, auto-alokairuena, bidaiak konbinatuena eta abarrena.

Edozein bidaiak online kontratatzen denean, ondoren arazorik ez izateko, hainbat gauza izan behar dira kontuan, esate baterako, webgune segurua dela egiaztatu behar

da edo erosketa egiteko erabiltzen ari garen ordenagailua babestu behar da. Baina arretaz jardun arren, ez gara % 100ean libratuko hainbat ustekabeko izatetik. Hainbat kontsumo-erakundetan bildutako kasuen adibide batzuk emango dizkizuegu.

Hegazkin txartel bat erosi dut hegazkin konpainia batean. Nola jakin dezaket txartelaren erosketa egokia izan dela? Enpresak, berrespenaz gain, hartu-agiria

bidali behar du kontsumitzailearen helbide elektronikora 24 orduko epean. Garrantzitsua da ERRESERBAREN berrespenaren eta txartelaren EROSKETAREN berrespenaren arteko bereizketa egitea. Txartel bat erreserbatzeko ez du esan nahi txartela erosi denik, zeren enpresa batzuek aurre-erreserbako epe jakin bat ahalbidetzen baitute gauzatu aurretik. Enpresa horiek, orokorrean, erreserba berresteko mezu bat bidaltzen dute ohar batekin, eta ohar horretan adierazten dute erosketa egiten denean eta kargua onartu ondoren, erosketa berresteko mezu elektronikoa jasoko dela. Bigarren mezu elektronikoa hori jaso arte itxaron behar da kon-

tratu behar bezala egin dela ziur jakiteko.

Hegazkin txartel bat erosi dut, eta txartel bakar baten balioko erosketaren hartu agiria dudan arren, bi txarteli dagokiena kobratu didate. Nola eska dezaket txartel baten zenbatekoa itzul diezadaten? Konpainiarekin jarri beharko genuke harremanetan. Konpainiak ez badu onartzen zenbatekoa itzultzea, banku-erakundeari agindu diezaiokegu bigarren zordunketa bertan behera uztea. Enpresak erreklamatzeko badu, dagokion datarako eta ibilbidetarako txartel bakarraren ordezkagiri digitala izango dugu frogagisa.

Txartel bat erosi badut internet bidez, txartela fisikoki bida-

li behar al didate? Konpainia bakoitzak bere modus operandia du. Batzuetan, nahikoa izaten da bilagailuaren zenbakiarekin. Zenbaki hori aireportuan aurkeztuko da hegazkineratzeko txartela emateko zehazten diren nor-tasun-agiriekin batera. Aipatutako txartel hori da hegazkinean sartzea bermatzen duena. Beste batzuetan, nahitaezkoa da konpainiaren mostradorera joatea bilagailuarekin txartel fisikoa lortzeko. Zenbait konpainiak gomendatzen dute posta elektronikoko bidez igortzen den txartela inprimatzea; izan ere, kobratu dezakete txartela aireportuan emateagatik.

Iratxe Kontsumitzaile Elkarte

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea

eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esan

eta iritzien erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus edo 948 564 275 telefonoa.**

STOP KONTROL

Tasio Merchan, *Ikasle Abertzale* en izenean

Idatzi honen bitartez Sakanako Ikasle Abertzaleok egunero pairatzen dugun kontrola salatu nahi dugu. Ikasturtean zehar foralen presentzia itogarria izan da Altsasu institutuko eta Iñigo Aritza ikastolako sarreretan. Astero ikasleria kontrolatzeaz gain, aldi batzuetan autobusak geldiarazten dituzte.

Honi gehitu behar zaizkio egunero Sakanan dauden Guardia Zibilen zein Foralen kontrolak. Sakana Europako zonalde militarizatuenetariko da. 20.000 biztanleko bailara honetan Guardia Zibilen bi kuartel eta Foralen beste bat daude. Indar okupatzaileen helburua zein den argi

dago: *status quo*-a mantendu eta hau zalantzan jar dezakeen edozein gauza erreprimitzea. Sakana bailara borrokalari da eta horregatik dauka horren presentzia polizial handia.

Etorkizun aske bat eraiki behar badugu gerra egitera etorri zirenek alde egin behar dute. Azkenik, maiatzaren 8an errebaliden aurkako manian gertatutakoa salatu nahi dugu. Manifestazioa udaletxe aurrean zegoela, pankarta kendu eta disolbatzeko agindua eman zigun Guardia Zibila, isunekin mehatxatuz. **UTZI IKASLERIA ETA GURE IKASTETXEAK BAKEAN! ALDE HEMENDIK!**

Nori komeni zaio hitzarmen hau?

Nerea Martiarena Vallero. Fundación

Sustrai Erakuntza

Nafarroako Prestazio Handiko Trenaren Korridorearen (AHT) bultzadaren antzerkiaren aurrean gaude, zaharkituta eta iraungita dagoen Abiadura Handiko Trenarena alegia, oraingo Nafarroako Gobernuak modu tematian berrizendatu nahi duenarena. Hizkuntzaren jokoaren gauzak dira, gauzak bere izenarekin ez deitzeareana: Sanferminetako museoa, Los Arcoseko zirku itoa, Navarra Arena, eta orain Prestazio Handiko Trena (AHT).

UPN/PSNren proiektu zaharretik ez da koma bat ere aldatu, ideia bat egiteko Ingurugiro Eragin Txostena 2004. urtekoa da (orain dela 13 urtekoa, ez da makala!). Orain badirudi PP eta Geroa Bai Nafarroangaratu nahi duten trenbide ereduarekin ados dau-

dela. Hau bultzatzeko lanak ere banatu dituztela dirudi: Geroa Baik Iruñerrian eta agian Sakanan egiteaz arduratuko da, eta UPN/PP Castejonetik Campanaseko zatian. [...]

Eta orain Nafarroako Gobernuak tematzen ari da AHT eraikitze lanekin jarraitzeko hitzarmen bat sinatzeko, eta negoziatuzioa abiaraztea erabaki du.

Orain dela gutxi, Espainako Gobernuak Ministroa den Iñigo de la Serna (PP) eta Nafarroako Gobernuak lehendakari ordea den Manu Ayerdi (Geroa Bai) artean izandako bilera argigarria izan da, itxurakeriak alde batera utzita: ados daude.

Teknikoki, gaur egungo azpiegitura hobetzeko aukerak aztertu gabe jarraitzen dute, eta ekonomikoki Ministroak argi utzi zuten: aurreikusitako 675 milioi

euroak orain "800 bat milioietara" handitu nahi da, "eta behar bada 1000 milioietara handituko dugu". Horrela hartzen dira erabaki politikoak, eta horrela xahutzen da diru publikoa. [...]

Antzerkiarekin edo gabe, hainbat gauza ez dira hainbeste aldatu, hamahiru urte eta gero hemen jarraitzen dugu, galdera gehiegi jarraitzen dute erantzunik gabe.

Zein da Castejonetik Campanasera egin nahi den zatiaren aurrekontua 675, 800 edo 1000 milioi euro?

Trenbide eredu merkeago bat behar dugu, Suitzakoaren antzekoa, egituratua eta lurraldearen arabera antolatua?

Edo trenbide eredu garestia, elitista, zentralizatua, errentagarritasun azterlanik gabekoa, irizpide politikoekin diseinatua?

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ZUZENTZAILEA: Miren Alonso Razkin
ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gk komunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:



>> **Arbizu**

Erabakitze prest



Arbizuko Gure Esku Dagok deituta makina bat herritarren artean galdera ikurra formako mosaikoa sortu zuten ostiral iluntzean. Globo gorriak eskutan erabakitze prest daudela irudikatu zuten arbizuarrak. Izan ere, garagarriaren 18an estatus politikoari buruzko herri galdeketa izanen da eta arbizuarrak hartan parte hartzea gonbidatu dituzte. Honako galderari erantzun beharko diote: nahi duzu Nafarroak gainerako euskal lurraldeekin estatu bat eratzea?

Baina galdeketa aurretik Bilbora joateko deia egin zuten ostiralean. Izan ere, herriz herri egin den moduan, Gure Esku Dagok galdera ikur erraldoi bat sortu nahi du Bizkaiko hiriburuan garagarriaren 10ean. "Elkarrekin zer egin dezakegun irudikatu nahi dugu". Herri-tarrak erabakitze prest daudela irudikatzearekin batera, Bilboko ekitaldia Itun Herritarra aurkezteko baliatuko du Gure Esku Dagok, "erabakitze eskubidearen alde sortzen ari diren forma eta eduki anitzeko adierazpen guztiak bilduko dituen ituna" izanen da.

Burunda

Bestalde, **Altsasuko** Gure Esku Dagok gaur erabakitzeko eskubidea babesten duen eta herritarrak protagonista diren bideoa aurkeztuko du gaur, 19:30ean, lortia kultur gunean.

Olatzagutiko Gure Esku Dagok domekan, 12:30ean, herritarrak kultur etxera deitu ditu. Alkate izandakoek adierazpena publiko eginen dute eta herritarrekin grabatutako bideoa ikusgai izanen da.

>> **Arakil / Irurtzun / Irañeta / Uharte Arakil / Arruazu**

Iturraskarri proiektua ezagutarazteko hainbat ekimen egingen dira aurten

Ikastetxeetako ikasleek Iturraskarriko bideak ezagutzeko aukera izanen dute. Helduek aukera bera izanen dute bost etapa eginez

Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Babestutako Gizarte Enplegu proiektua du. Han parte hartzen duten pertsonen trebatzeko eta prestakuntza jasotzeko hainbat lan eskaintzen dizkiete Iturraskarri egitasmoaren bidez. Gizarte egitasmo horren onuradun bakarrak ez dira Iturraskarri ari diren pertsonak, jendarte guztia baizik. Izan ere, langileek, bideak, askak, garbitokiak, bideak eta bertako ondarearen adierazle direnak zaharberritzen edo txukuntzen dituzte. Beraz, gizarte-izaera duen proiektuak turismoa sustatu eta bertako ondarea, kultura eta natura babesten ditu.

Mankomunitateak erabaki du aurten Iturraskarriren bidez eginga dako lana ezagutzera ematea. Horretarako haur eta helduei zuzendutako txangoan antolatzeaz aparte, Iturraskarriko bide guztiak jasotzen dituen materiala argitaratuko dute bai Interneten bai paperean. Horrekin batera, orain arteko 12 urteetan txukundutako bideetan mantentze lanak egingen dituzte. Azkenik, bide sarearen babesle izanen diren 35 pertsona opatu nahi dituzte.

Iturraskarriko bideetan barna

Babestutako Gizarte Enpleguaren bidez berreskuratu diren bideak garai batean, orain dela gutxira arte, azienda salerosketetarako, senideei bisitak egiteko, herrietako festetara joateko eta bestelako erabilgarri izan dira. Utzikieria-gatik edota ahanzturagatik hainbat bide tarte, partikularrek, errepideek, lur biltzek, sasiak... hartuak dituzte. Iturraskarriko bide horiei duten ondare-balioa, balio historikoa, oroitarazlea eta funtzionala bueltatu nahi die, handia izan baita.

Urteroko lanarekin osatutako



Bideetako bat konpontzen. Aurten launa gizon-emakume ariko dira Iturraskarriren. 12 urtetan 89 aritu dira. UTZITAKOIA

bide sarea txikiei ezagutarazi nahi diete, hurrek haien edertasunaz, erabilgarritasunaz eta aberastasunaz jabetu eta merezi duten errespetuaz eta zaintzaz sentsibilizatzeko. Horretarako, ikastetxeei zuzendutako txango gidatuak egingen dituzte. Ikastetxeei eta txikiei ere bide zati baten babesle izatea proposatuko diete. Onartuz gero, zati horretan txangoa egin eta bidea zein egoeratan dagoen jakinarazi beharko liokete mankomunitate-

ari. Garagartzaroaren 13an, asteartean, Uharte Arakilgo eskola publikoko ikasleak egingen dute txangoa. Garagartzaroaren 15ean, ostegunean, berriz, Irurtzungo Atakondoa eskola publikokoek. Betelu eta Lekunberriko eskole-takoen txanda irailaren 12an eta 14an izanen da.

Helduendako eskaintza

Iturraskarriko bide-sareak 170 km-ko luzera du. Hura bost etapetan

ezagutzea proposatu dute mankomunitatek. 15 eta 20 km arteko ibilbideak proposatu dituzte. Ibiltariak bidean Iturraskarriren eginga dako lanari buruzko azalpenak jasoko dituzte eta, akaberan, auzatea izanen dute. Herri berean hasi eta bukatzen diren bi etapa daude, baina beste hirurak herri batean hasi eta bestean bukatzen dira. Azken horietan parte hartzen dutenek irteera puntura itzultzeko garraioa izanen dute.

Helduendako etapak

| Ibilbidea | Eguna* |
|-------------------|------------------------------|
| Arruazu-Egiarreta | Garagartzaroak 17, larunbata |
| Egiarreta-Errotz | Garagartzaroak 18, igandea |
| Arribe-Arribe | Irailak 10, igandea |
| Errazkin-Latasa | Irailak 16, larunbata |
| Irurtzun-Irurtzun | Lastailak 8, igandea |

*9:00etan abiatuko dira

Izen ematea

Etapako bakoitza baino 3 egun lehenagora arte, **639 127 271** telefonoan. Doan.

Bide babesleak

Iturraskarriko arduradunek bide sarea egoera onean mantendu nahi dute. Horretarako, konpromiso erraz bat hartuko duten 35 babesle lortu nahi dituzte. Haien egitekoa aukeratutako bide zatian urtean behin buelta bat ematea eta hura zein egoeratan dagoen jakinaraztea da egiteko bakarra. Hau da, margo-markak berritu behar diren, zuhaitzen bat erori den, lurra erori den edota sasiak kendu behar diren esatea.

12 urteko ibilbidea

Iturraskarri 2006. urtean jarri zen martxan. 12 urte horietan garbitokiak, iturriak, askak, konjurutokiak, ferratokiak, korrika-lekuak eta berdeguneak berritu ditu. Horretaz aparte, eskualdeko herri guztiak lotzen dituzten bide asko, burdinbide berdeak, Donejakue bidea, errege-bideak, errege-abelbideak, mandazainen bideak, suebakiak, gurdibideak eta xendak garbitu, markatu eta bertan mantentze-lanak egingo ditu. Horiek guztiak historia, bitxikeria, ederta-

suneta ezagutza ugari gordetzen dute bere barnean. Haiei buruzko ezagutza bultzatu nahi da Iturraskarriren bidez, merezi duten errespetuaz eta zaintzaz sentsibilizatzeko, baloratu eta gozatzeko. Eraberean, panel informatiboak jarri eta liburuxkak eta web-orriak argitaratu dituzte. Makinabat jenderen ahaleginaren fruitua da Iturraskarri. 12 urte horietan sari eta aitortpen ugari jaso ditu proiektuak, ondarea berreskuratzeko egindako lanagatik eta jardunbide egokiagatik, eta oro har proiektua bere osotasunean hartuta.



nerea cenoz
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatuak
(Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacnoz.com
nereacnoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · Lakuntza
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

OLAZTIKO UDALA
XEHEZASUN AZTERLANA.
HASIERAKO ONESPENA

Alkatetzaren 2017ko maiatzaren 17ko 126/2017 Ebazpenaren bidez, hasiera batean Onetsi da Olatziko 8. poligonoko 649. lurzatiaren xehetasun azterlana.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzako buruzko 35/2002 Foru legea betetzeko argitaratzen da. Olatzi/Olzagutian, 2017ko maiatzaren 22an. Alkate udalburua: Mikel Azkargorta Boal.

MAPFRE Altsasu



948 563 354 · jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

» Etxarri Aranatz

Gaztetxearen 10 kandelak

Sakanako gazte asanblada zaharretariko bat izanen da Etxarri Aranazkoa, baina herriko gazteak hamarkada bakarra du. Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak (EGA) bere egoitzaren urteurrena ospatzeko Hamar urte, hamaika eiteko lelopean egitarau zabala antolatu du martxotik. Ospakizunak biharko Euskal Festarekin despedituko dira.

Etxarriko gaztetxea 2007ko garagarriaren 9an mustu zen. Aurretik udal langileen tresneria biltegia eta aldagelak hartu zituzten. Haiek guztiak Zumurdiñeta industrialdera lekualdatu ziren 2006ko garilaren 22an eta egun horretan bertan EGAKo kideak sartu ziren, gertu ziren festetarako egoitza txukun utzi asmoz.

Haiek pasa ondoren etorri zen lokalaren egokitzapena. Ideia lehiaketan 30 egitasmo jaso ziren, baina batek berak ere asebetetzen ez zituztenez, ideia onenekin osa-

Egitaraua

10:00etan Herri mugimenduben azoka.

11:00etan Dux-i omenaldia.

12:00etan Erraldodien aurkezpena eta txotx auzatie.

12:00etan Auzuen herri kirolak.

15:00etan Bazkaye.

17:30ean Elektro txaranga.

20:00etan Ekitaldiye.

23:00etan Altxatu eta Zopilotes Txirriaos.



Altxatu eta Zopilotesekin, kontzertuko gunea goraino beteko da.

tu zuten proiektua. Auzolanean barra, eszena, sukalde-biltegia, komunak eta bigela egin zituzten. Egungoa ez da Etxarrik izan duen

lehen gaztetxea, 1996ko martxoaren 9an Circuloa zena okupatu zuten gazteek, teilatua erori arte iraun zuena.

» Altsasu



Gazteei eskainitako bigarren asteburua

Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatutako Gazte Egunen bigarren asteburua izanen da honakoa. Aurrekoan Itxostiapunta gazte gunean txapelketa arratsaldea eta joko erraldoiak izan baziren, gaurko eta biharko eskaintza ere bada. The Guilty Brigade eta Purapose taldeek kontzertuak eskainiko dituzte, Foru plazan, 23:00etan. Aguraingo Purapose boskotean Xabier Zelaia altsasuarra ari da baxua jotzen. Iruñetik heldu da, berriz, The Guilty Brigade. Punk-rocka ontzen duen lau koteak aurten karrikatu duen No apto para cuerdxs diskoa, laugarrena, aurkeztuko du. Bihar, berriz, gazte gunean agurtze festa izanen da. Handik pasatzen direnek karaoke, musika, artea, afaria, koktelak eta beste izanen dituzte.



Erraldoi berriak jendaurrera

Larunbatean, 12:00etatik 14:30era, Etxarri Aranazko plazan

Festetan eta beste ospakizunetan erabiliko ziren erraldoiak egiteko Etxarri Aranazko Udaleko Kultura Zerbitzuak etxarriarrei ideiak eskatu zizkien ilbeltzean. Jasotako ideiak erraldoietan bihurtzeko lana hartu zuten Paola Ferrarrik, Txaro Garziandiak eta Florencia Nilok. Lau erraldoi egin dituzte, udalak eskatu bezala herriko pertsonaiak edo etxarriarrendako esanguratsua izan zitezkeen pertsonaiak. Aurretik

oso ondatuak zeuden erregeen irudiak berrerabiliak izan dira.

Erraldodien izenak, zergatia eta haiek ezagutu nahi dituenak bihar du hitzordua plazan. Bide batez, Kultura Zerbitzuak erraldoiak dantzatzeko konpartsa osatzeko apirilko deialdiak eragirik izan duen jakiteko aukera izanen da. Bi hamarkada pasa erraldoirik gabe eman ondoren, berriro bueltan dira Etxarri Aranazko erraldoiak. Udalak buruhandiak duela bost urte konpondu zituen.



Erraldoiei forma eman dien hirukotea lanean.



Adifek geralekuko ondoko erabilera mugatu du



Ferialeku kalearen trenbidez bestaldeko partela da Adifek esku hartu duena. Trenbide azpiegituren kudeaketaz arduratzen den enpresak hainbat kexa jaso zituen. Auzokide batzuek lursaila aparkaleku edota biltegi gisa erabiltzen zuten. Jasotako kexei bide emanez, eta udalaren baimenaz, Adifek lursaila harri handi batzuekin mugatu du, handik pasatzen den bidea errespetatuz. Apirilko azken astean jarri zituen harriak. Aldeak ados jarri dira eta orain arte lursaila erabiltzen zuten auzokideek egurra gordetzeko aukera izanen dute. Bestalde, herenegungo bilkuran, Altsasuko Udalak aurrekontuaren bi moldaketa onartu zituen. Alde batetik, 20.000 euro bideratuko ditu haur eskola berriko galdara gela jartzeko. Beste moldaketa, 3.000 eurokoa, heldu den urtean basoan egin beharreko lanen proiektuaren erredakzioa ordaintzeko izanen dira.

» Lakuntza

Jaialdia auzolanean prestatzen

Hurrengo auzolana garagarriaren 10ean izanen da

Hatortxu Rock jaialdia behar bezala egin dadin aspaldi ari da jendea lanean. Bilera askoren ondoren jaialdia hartuko duen tokia prestatzeko lanari ere heldu diote. Maiatzaren 13an aurreneko auzolana egin zen eta asteburu honetan horretan eman dute hainbatek: jaialdirako tokiak prestatzen. Sasiak mozteko makinekin, trak-

Batzarra

Jaialdia prestatzeko hileroko batzarra egitenda. Hurrengo garagarriaren 6an izanen da, 19:00etan, Lakuntzako udaletxeko batzar gelan.

toreekin eta bestelakoekin aritu dira lanean garilaren 27tik 30era etorriko den jendetzarendako dena prest egon dadin.



Boluntarioek pinudia eta ingurua txukuntzen aritu ziren.

» Uharte Arakil

Galiziako gastronomiarekin gozaten

Uhartearrak, eta Uharte Arakile-ra asteburuan gerturatu ziren makina bat sakandarrek gozatu ederra hartu zuten Galiziako itsasziak eta haragia janez. Plazako aterpea jendearen etengabeko emaria izan zen. Jatekoa Galiziako ardo txurriekin, Albariño eta Riveiroarekin bulkatu zuten.



Uhartearrek ederki ase ziren Galiziako edari zein jakiekin.

SAKANA

Neguan 20 sute itzali dituzte suhiltzaileek

Nafarroako Gobernuak baso-suteak prebenitzeko eta itzaltzeko neguko kanpainaren balantzea egin du. Kanpaina abendutik apirilera bitartean garatzen da, eta azken hamarkadako biziena izan da: 663 sute gertatu dira, eta 1.153,74 hektarea kaltetu dituzte. Horietatik, %96, baso-azalera ziren. Altsasuko suhiltzaileen parkeak 20 alditan esku hartu behar izan du.

» Olatzagutia

Errefuxiatuez, gaur eta etzi

Dokumentala eta solasaldia izanen dira gaur, makina bat objekturi bizi berri bat emateko aukera, berriz, etzi

Domingo Bados eskola publikoaren Ikas Komunitatea proiektuaren barruan errefuxiatuen aldeko astea antolatu da. Astearen aurkezpenean Emma Martinez zuzendariak azaldu zuenez, “halako errealitate bati ezin diogulako bizkarra eman. Oso kontzientek izan behar dugu, munduan gertatzen diren gauzen inguruan, baita gure ikasleak ere. Eta, bestetik, herritarrak eta komunitatea garen aldetik ere”.

Eskolak, hango guraso elkarrekin, Olatzagutiko Udala eta Sakanako Mankomunitateko Anitzartean, kulturartekotasun zerbi-



Greziako errefuxiatu eremuen berri jaso zuten eskola eta ikastolako ikasleek eta hainbat olaztiarrek. OLAZTI KULTURA

tzuaren laguntzaz antolatu dute astea. Greziako errefuxiatuendako kanpamentuetan boluntario

gisa lanean aritu zen Bego Zestauren eta Iruñean bizi den Abdul Raza errefuxiatu siriarraren leku-

kotzek abiarazi zuten egitaraua asteartean. Haien hitzaldiak hainbat pertsona erakarri zituen. Aste-

Egitaraua

»» Garagarriak 2, ostirala
19:00etan Just People dokumentala eta CEARKo eta Help-Nako kideekin solasaldia. Kultur etxean.

»» Garagarriak 4, domeka
10:00etatik 14:00etara 2. eskuko azoka, San Migel plazan. Cesar Asiain abeslariak musika ibilbidea eskainiko du.

19:00etan Invisibles helduendako antzezlan. Trapalgán antzerki taldea.

buru betea gelditzen da. Dirua ateratzeko antolatu diren ekimenean (domekako bigarren eskuko azoka eta antzezlan) lortutakoa Help-Navarra erakundearendako izanen da.

» Urdiain

Bentari erabilera ematera

Udalak beheko solairuari bi erabilera emanen die: gazteendako eta udal-biltegiarako. Kanpo santuan ere lanak egiteko da

Urdiaingo Udalak 440.000 euroko aurrekontua izanen du aurten, joan den urtekoan baino 7.000 euro gehiago. Aurrekontuaren zati handiena udalaren funtzionamendua eta ohiko gastuek eramaten dute eta “normalean oso margen gutxi gelditzen da beste gauzetarako. Margena sortzekotan ezohiko diru sarreretatik lortzen da”, azaldu du David Oroz alkateak. Joan den urtean udalak ezohiko diru sarrerak izan zituen: Eulaliaren etxearen salmentagatik 43.400 euro eta baso aprobetxamendutik 54.400 euro. “Sarrera horiek inbertsioerarako erabiltzen ditugu”. Aparteko diru sarrera horrek “beharra” zuten pare bat gauza egin zituzten: haurren jolas parkea berri eta bentako teilatua konpondu (40.000 euro inguru).

Herrian “beti dago zerbait egiteko” ziurtatu du Orozek. Eta horietako batzuk aurreratu dizki-

gu. “Momentuz, bentako beheko plantari zentzu bat eman. Aurreko aldean, gazteendako txoko txukun bat. Behar dutelako, eta merezi dutelako euren ekintzak eta gauzak modu eta txoko duin batean egin ahal izateko”. Gaur egun frontoiaren azpiko gelaxka batean dute egoitza eta horri gazteek “antro” deitzen omen diote. Atzeko aldea, berriz, udal biltegia da.

Kanpo santua

Alkateak azaldu digunez, “hilerria betetzen ari zitzaigun. Pentsatzen genuen kanpo-santuak ezin zuela toki gehiago hartu. Kanpo santuak zati zaharra eta berria ditu. Azken hori betetze ar zegoen. Erabaki genuen zaharretik gorpuzkiak ateratzeko aukera ematea. Horretarako joan den urte osoa egon zen. Batzuek atera zituzten eta besteek bertan uztea erabaki dute”. Orain asmoa gainean lurra botatzea eta dena berdintzea da, “pixka bat txukuntzeko. Eta hor urteerarako tokia izanen dugu”. Kolunbarioak ere



Urdiaingo bentako beheko solairuan udal biltegia eta gazteendako txokoa jartzea da proposamena.

egin dituzte, hautsen-ontziek tokia izan dezaten.

Aitziber elkarteak Urriztin duen igerilekuak konponketa premia du. “Igerilekuek herri osoari ematen dioten zerbitzua ukaezina da”. Inbertsio handia egin behar da eta elkartetik laguntza eske etorri ziren. Lanak egiten dituztenean udalak 30.000 euro emanen ditu. Gure ahalmenaren barruan

dagoen kopurua da”, argitu du alkateak; “alde guztiak pozik gelditzeko moduko akordio batera iritsi garela uste dut”.

Bestelako lanak ere aurreikusiten ditu udalak. Maubiako pista-aren hasieran, esaterako, egurrendako kargatzeko egitura egin nahi da. 32.000 euroko aurrekontua du eta haren 13.583 euro Nafarroako Gobernuaren diru-lagun-

tzarekin pagatuko da. Orain arte basotik ateratako enborrak igerilekuen ondoan uzten ziren, “inpaktu aldetik, baina batez ere segurtasunagatik, ez zitzaigun tokirik egokiena iruditzen”. Iruñetik diru-laguntza jasoz gero Berroetakozuloko bidea konponduko luke udalak. Azkenik, www.urdiaingoa.eus web orria sortzekotan da udala.

SAKANA

Konposta eskuragarri

Arbizuko hondakindegian, astegunetan, 7:00etatik 14:00etara

Sakanako Mankomunitateak ibarreko auzo-konpostagailuetan egiten den konposta sakandarren esku utzi du. Makina bat etxetako materia organikoa kalitatezko konpost bihurtu dela azaldu dute Mank-eko Hondakin bilketa zerbitzutik. Orain hura eskuratu eta erabili nahi duenak aukera du, Arbizuko hondakindegitik pasa beharko du horretarako. Hondakin bilketa zerbitzutik jakinarazi

dutenez, etxebizitza bakoitzeko 3 konpost zaku har litezke. Zakuak norberak eraman beharko ditu, baita haiek betetzeko tresnak ere.

Konposta gure lurren kalitatea hobetzeko erabil daiteke. Loreontzietan erabiliz gero lur normalekin nahastu behar da, 3 zati lur konposteko bat proportzioa zainduz, bestela landarea erreko litzateke. Baratzetan erabili nahi duenak lurraren gainean zabaltzarekin nahikoa du, hori bai, gehiezin 2-3 cm-ko kapa eginez.



Hondakindegian konpost pila bat.

Altsasuarrei deia

Mank-etik, altsasuarrak 5. edukiontzian izena ematera animatu dituzte berritzaileak. “Horrela, materia organikoa banatzen duten sakandarren gehiengoarekin bat egingen dute”. Izena emateko 900 730 450 doako telefonora hots egin daiteke edo Baratzekobiden dagoen lokomotoratik pasa daiteke asteazkenetan, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Argibide horiek eta gehiagomatendituen esku-orriak jaso dute makina bat altsasuarrak egun hauetan, Altsasuko Udalak esku-orri etxetarako kontribuzio zergaren gutunarekin batera bidali baitu.

Hara zer dien Musikoterapia zer den

Musikoterapia esku-hartze prozesu sistematiko bat da. Musikoterapeuta profesional batek (horretarako bereziki trebatua, eta on-line formazioak ez du balio) musika, bere elementuak (soinua, erritmoa, doinua, harmonia) eta esperientzia musikalak erabiltzen ditu modu egituratu batean.

Horrela, ardurapean daukan pertsonaren behar kognitiboen, fisikoen, sozio-emozionalen eta jokabidezkoen beharren arabera helburu jakin batzuk lortuko ditu.

Hau dela eta, besteren artean, osasun arloko edozein langilek edo edozein musikaririk, nahiz eta oso profesionalak izan, ezin du "musikoterapiarik" egin, gaur egun "modakoa" dela dirudi.

Prozesu eta lan metodologia honetan funtsezkoak dira aliantza terapeutiko on bat, lan egiten ari den pertsonen beharren ezagutza, eta esku-hartzearen balorazio eta plangintza egokia. Hau guztia lan tresnaren ezagutza eta erabilera gain; musika.

Makina bat ikerketek egiaztatu dute musikoterapiaren tekniken eraginkortasuna demenztzia daukaten pertsonengan.

Teknikak izan daitezke aktiboak (kantua, inprobisazioa, instrumentuekin laguntzea, musika eta mugimendua...) edo adikorrak (aukeratutako musika entzutea) eta lortutako helburuak jokabide alterazioen tratamendua eta gutxitzea dira, besteak beste, agresibitatea, noraezean ibiltzea, aztoramendua, hitz-jarioa, errealitatean orientatzea, sozializazioa...

Esku-hartzea bakarkakoa edo taldekakoa izan daiteke. Saioek egitura jakin bat dute; Klinikaren Ospitaleratze Gunekoak, adibidez, ongietorri abesti batekin hasten dira (horretarako bereziki konposatua), agurtzeko abesti batekin bukatzen dute eta tarteko garapen bat izaten dute, helburuen arabera teknika batzuekin edo besteekin osatutakoa.

Izan ere, hark esan zuen moduan, besteak sartuezin diren tokiraino iristen da musika.

Josefina Arregui Klinika

SAKANA

Mahai-jokoaren finalen abarora elkartuta

Ipar mendebaldeko jubilatuta eta pentsiodun elkarten mahai-jokoaren finalak astelehenean jokatu ziren. Lakuntzako Gure Nahia elkarteak hiru txapelketetako finalak hartu zituen. Haietan sei elkarteetako 44 lagunek parte hartu zuten. Muslari trebeenak Iturmendiko Pedro M^a Goikoe-txea eta Mikel Lopez izan ziren finalean Lakuntza-Arruazuko Patxi Azpilikuetak eta Pedro M. Ganboak osatutako bikoteari irabazi baitzioten.

Partxisean trebeenak Irurtzungo Paula Loidi eta M. Carmen Cruz izan ziren, finalean Lakuntzako Arantxa Urzelairi eta Sokorro Artiedari aurre hartu zietenak. Briskan, azkenik, abilenak Martina Lasa eta M. Angeles Agirre olaztiarrak izan ziren, Irurtzungo Ramona Franca eta Ines Laba-



Jubilatu eta pentsiodun elkarten jokoetako sarituak.

ri baino hobe aritu baitziren. Finalak jokatu ondoren sari banaketa egin zen. Rural Kutxak, Mendigai- nek, Txistorras Arbizuk eta Isidoro Arregik emandako sariak jaso-

zizuten irabazleek. Ondoren, guztiendako auzatea izan zen. Heldu den urteko txapelketan parte hartzeko gonbidapena luzatuta despetitu ziren.

Unanu

Ciao, mamuxarro

Unanuko ihote segizioak Tricaricoko 6. Maskara Antropologikoen Konbentzioan parte hartuko dute asteburuan

Italia eta Europako 21 maskara segizio, ihoteak gehienak, hiru egunez Italia hegoaldeko Tricarico herria hartuko dute. Maskaradunek kolorez, soinu eta dantzaz beteko dute herria. Eta haien artean zortzi unanuar izanen dira, Basilikata eskualdera herriko ihotea erakustera joan direnak. Haietako sei mamuxarroz jantziko dira eta beste biak mutuz. Maskaradunen segizioak larunbatean, 17:45ean, elkartu eta segizioa osatuz herrian barna ibiliko dira.

Unanuarrek atzo abiatu ziren Italiarantz eta etzi bueltatuko dira. Joseba Imazek esan digunez, bigarren urtez segidan parte hartuko dute unanuarrek konbentzioan.



Unanuko ihotea Italia hegoaldean erakutsiko dute asteburuan.

Joan den urtean bi emakumezko joan baziren, aurten denak gizonnezkoak izanen dira. "Berandu hots egin dute eta denek ere ezin zuten". Sakanako beste ihoteetakoak jakinarazteko ere betarik ez dute izan. Italiarrak noizbait hona etortzea ez du baztertu. Han eza gutu dituzten ihote segizio gehienak zarpantzarren modukoak direla ere azaldu digu.

Seigarren urtez antolatu dute Maskara Antropologikoen Konbentzioa. Manifestazio bakarra bere generoan, erritu eta ohitura sekularrez kargatuta, historia-, kultura- eta gizarte-ondare balio handia duena, babestu eta transmititu behar dena". Horregatik, ostiralean eta larunbatean jardunaldiak izanen dira eta argazki erakusketa ere prestatuta dute.


SAKANA

LH institutuan 3D inprimaketa ikastaroa

Izen ematea institutuan bertan egin behar da, 9:00etatik 14:00etara

Sakana Lanbide Heziketa institutuak 3D inprimaketa ikastaroa eman du garagarriaren 6tik 28ra, asteleheneetik ostegunera, 18:00etatik 21:00etara. 40 orduko ikastaroan hiru dimentsioan inprimatzeko teknologia eta gaur egun gero eta sektore gehiagotan barneratzen ari diren prozedurak ezagutzeko balioko du. Institututik azaldu dutenez, "tresna hori beharrezkoa da merkatuetara jada iritsi den azken iraultzara egokitzeko, 4.0. industriara".

Nafar Lansarek-k diruz lagunduta dago ikastaroa eta izen ema-



3D inprimagailuak erabiltzen ikastekiko aukera eskaintzen du Sakana LHK.

tean langile aktiboak erabateko lehentasuna dute, baina langabetuek ere ikasteko aukera izanen

dute. Jakinarazi dutenez, ikastaroen onarpen ordena izen ematearen ordenaren arabera izanen da.

>>

Beharra dutenen aldeko elikagai bilketa handia

Gaur eta bihar ohiko tokietan premia dutenendako jakiak jasoko dituzte

30.700 nafarrek baino gehiagok, 8.000 bat familiek, Nafarroako Elikagai Bankuaren produktuak jasotzen dituzte. Herraldean barna duden 199 erakunderen bidez banatzen dituzte bankuak jaki horiek. Baina banatu ahal izateko, bankuak bere biltegiak jakiz bete behar dituzte. Horregatik, egingen du asteburuan jaki bilketa. Hura behar bezala egiteko makina bat boluntariok lan egingen dute gaur eta bihar.



>> Ergoia / Arbizu

Militarren ariketak Berriainean

Espainiako armadako 20 bat militar eta hainbat ibilgailu Berriain inguruan ibili ziren herenegun. Espainiako Gobernu Ordezkaritzatik jakinarazi dutenez, ohiko maniobra ziren. Unanun hammer ibilgailu bat aurrera eta atzera eta bi kamioi ikusi zituzten 9:00etan. Azken horietatik 20 bat militar jaitsi ziren. Antza, Ondatz eta Berriain inguruan ibili ziren. Arbizuko kanpinaren parean dagoen aparkalekuan 2 kamioi eta 3 lur orotako ibilgailu egon ziren 13:30ak aldera arte. Hala ere, hammer ibilgailuan 15:00ak aldera bueltaka zebiltzala esan digute lekukoek. Duela bi urte inguru berean elurrarekin egindako militar ariketa batzuetan soldadu bati hatz bat izoztu zitzaion.

Militarrak, gutxienez, beste bitan izan dira Sakanan aurten. Ilbeltzaren 17an soldadu talde bat Altsasutik abiatu zen militar ariketarekin. Otsailaren 15ean, berriz, 20 soldaduk Sakana erdialdetik Urbasa-Andiarantz joko zutela jakinarazi zuen Nafarroako Militar Komandantziak.



SAKANA

Hondakinen tratamendurako hiru lan eginen dira

Konpostatze plana hondakindegian eta garbiguneak Altsasun eta Ziordian

Nafarroako Gobernuaren 2017-2019 Toki Inbertsioen Planeko hiri hondakinen tratamendurako inbertsioen programatik Sakanako Mankomunitateak 594.532 euro jasoko ditu. Diru-laguntza horrekin Mank-ek 900.000 euro inguruko inbertsioari aurre egiteko aukera izanen du. Hiru dira Mank-ek eginen dituen lanak. Alde batetik, Arbizuko hondakindegian konpostatze planta egi-

teko lanen bigarren faseari ekinen dio. Planta gaur egun hondakinak isurtzen diren gunearen gainean jartzekoak ziren eta hura jasotzeko 675.965 euro (BEZa barne) aurreikusten ziren. Baina kokapena aldatu da eta 700.000 euro baino gehiagoko inbertsioa izanen da. Lan horiek aurten hasi eta heldu den urtean despedituko dira. Urte bakoitzeko ibarreko erakundeak gobernutik 269.225 euro jasoko ditu. Aurreneko fasean Mank-ek makineria erosi zuen, joan den urtean.

Horrekin batera, hondakinak biltzeko bi gune prestatuko ditu Mank-ek. Bien aurrekontua 240.000 euro ingurukoa da eta 56.082 euroko diru-laguntza du. Aurten Altsasuko Udalak Pilotajaukun duen biltegiaren ondoan garbigune bat eginen da. Hasiera batean 42.859,5 euroko inbertsioa aurreikusten zuen ibarreko erakundeak, baina, azkenik 200.000 euro inguruko lanak izanen dira. Egitasmoa aldatu eta handitu izanaren ondorioa da aurrekontua handitzea. Ziordian, bestalde, gar-



Kamioia Sakanako hondakinak Tuterara eramaten.

bigune txikiago bat eginen du Mank-ek, elizaren atzeko aldean egonen da eta hura egiteak 10.423,28 euroko aurrekontua du, BEZa barne. Bien lanak aurten despedituko dira.

Milioi bat euro ur hornidurako lanetarako

Nafarroako Gobernuaren 2017-2019 Toki Inbertsioen Planeko Uraren goi hornidurako inbertsioen programak 1.068.000 euroko diru-laguntza ekarriko ditu Sakanara. Haietatik 888.000 euro Sakanako Mankomunitatearen dako izanen dira eta gainontzeko 180.000 euroak Irañetako Udalarendako. Azken horrek erregulazio biltegia berrituko du

2019an.

Ibarreko erakundeari dago-kienez, bi lan aurreikusten ditu. Aurten eta heldu den urtean Iribasko iturburutik Irurtzunera ura daraman hodi nagusiaren tarte batzuk berritu nahi ditu. Lan horietara 650.738,02 bideratuko ditu Mank-ek eta gobernutik urtero 244.000 euroko diru laguntza jasoko du. Hiru tartetan

berrituko da ur hoditeria: Iribasen 125.631,08 euroko inbertsioa eginen da, Mugiroko tuneletan 283.568,08 eurokoa eta, azkenik, Mugiroko 3. tuneletik San Migueltxorako tartean 241.538,86 euro. Kopuru guztiak BEZ zerga barne dute.

Lan horiek bukatuta, Mank-ek Urdalurko uharkako ura daraman sarea luzatzeko lanei helduko die



Ura eramateko hodiak Uharteko Arakilen pilotuta. ARTXIBOA

2019an. Asmoa Ihabar eta Irurtzun arteko tarte bat egitea da, zehazki Satrustegi eta Etxarren artekoa. Inbertsioa 532.400 eurokoa izanen da eta laguntza 400.000koa. Lanak 2019an eginen dira.

Altsasu

Dantzalekuko igerilekuko prezioak izoztuta

Altsasuko Udalak herenegungo egindako bilkuran udako igerilekuaren prezioak onartu zituen. Joan den urteko berak izanen dira eguneko sarrerak edo sasoi-ko txartelak. Igerilekuetan egin beharreko mantenu lanak despedituta, Dantzalekuko azpiegitura hilaren 15ean zabaltzea espero du udalak.

Moziok

Altsasuko Udalak EAJren batzokian agertutako azken pintaketak gaitzesten zituen mozioa onartu zuen. Talde guztiek alde bozkatu zuten, abstenitu egin zen EH Bildu izan ezik. Bestetik, Altsasuko Gure Esku Dagok aurkeztutako mozioa EH Bilduren eta Goazen Altsasuren aldeko bozekin eta gainontzekoen abstentzioarekin onartu zen. Onartutako mozioan udalak "begi onez ikusten du garagarriaren 18ko galdeketa, eta are gehiago, dei egiten die herritar guztiei bertan parte hartzera, iritzia



Altsasuarrek hilaren erdialdetik aurrera erabili ahaliko dituzte igerilekuak.

agertzera. Herri bat garelako, erabakitzeko eskubidea dugulako eta herritarrongaraia delako". Mozioan jaso dagoenez, "guztion parte hartzea ezinbesteko baldintza da erabakitzeko ariketa bat aurrera eramateko. Guztiok beharrezkoak gara. Garagarriaren 18an, erabaki nahiaren espresio izango

gara, desberdinen arteko topagune, elkarbizitzaren giltzarri".

Izan ere, Altsasuko Gure Esku Dagok dio altsasuar ororen bilgunea izan nahi duela, "emaitzaren gainetik, gizarte kohesiorako dagoen tresna egokiena baita. Gure etorkizuna erabaki nahi dugu, gure herritik hasita, gauza ederra baita, galderari erantzutea". Aipatu galdeketa altsasuarrek honako galderari erantzuna emateko aukera izanen dute: **nahi al duzu Nafarroako herritarrok burujabeak izatea etorkizun politikoa erabakitzeko?**

SAKANA

Mank-ek bi turismo informatzaile kontratatuko ditu

Eskaerak ibarreko erakundearen Lakuntzako egoitzan aurkeztu beharko dira, garagarriaren 9an 14:30ak baino lehen

Sakanako Plan Estrategikoaren turismo arloan jasotakoari segituz, Sakanako Mankomunitateak bi turismo informatzaile kontratatuko deialdia egin du. Kontratatutako pertsonen egitekoak honakoak izanen dira: turisten harrera eta informazio ematea; informazio eta datuen bilketa, eguneratze eta tratamendua; bisiten gidaritza; turismoari loturiko jardueretan turismo arduranari laguntzea eta material turistikoaren bilketa eta kudeaketa. Garagarriaren 26an hasiko dira lanean.

Interesa duten pertsonen hain-

bat betebeharrak dituzte. Alde bate-tik, langabezian egotea deialdi hau onetsi aurretik eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuan inskribaturik egotea, enplegu-eskatzaile gisa. Lana hobetzeko inskribaturik dauden pertsonen ezta autonomo gisa alta emanda daudenek ere ezin izanen dute deialdian parte hartu. Gainera, Lanbide Heziketako Bigarren Mailako edo Batxilergoko titulua izatea eskatzen da. EGA titulua edo baliokidea ez dutenek euskara proba pasa beharko lukete. Horretaz aparte, Bmotako gidabaimena eta ibilgailu propioa izatea beharrezkoa da. Baita B1 edo haren baliokidea den ingeles titulua izatea ere. Deialdi-ri buruzko argibide guztiak Mank-en web orrian daude.

| Dantzalekuko igerilekuko prezioak | | | |
|-----------------------------------|-----------|-----------|----------|
| Adina | Astegunak | Asteburua | Txartela |
| 3 urtez azpikoak | 0 | 0 | 0 |
| 3-15 | 3 | 3,5 | 35 |
| 16-65 | 4,5 | 5 | 50 |
| 65tik gorakoak | 3,5 | 4 | 40 |

40 tanatorios

IRACHE

aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es



Filo Yaben Lazcoz

Maitasuna ez da inoiz itzaltzen ta zuk emandakoa ez da inoiz itzaliko

Zure familia

Hiriberri



Javier Arkauz Rincon

Gorka Etxarri Soto

Beti gurekin

79ko kinta

Lakuntza, 2017ko ekainak 3



Julian Aldasoro Ayerbe

Zinena beti hiltzen da beste zerbait izateko.

Besarkada bero bat familia guztiari.

Etxarri Aranazko Ezker Abertzalea



Julian Lizarraga Larraza

Zurekin pasatako momentuak zoragarriak izan dira, gure gogoan bizirik jarraituko duzu. Eskerrik asko une gogor hauetan gerturatu zareten guztioi.

Etxekuek



Julian Aldasoro Ayerbe

Altsasuko Josefina Arregi klinikan hil zen maiatzaren 26an. Bere familiak bihotz-bihotzez eskertu nahi du Josefina Arregi klinikako ekipoarengandik izan dugun arreta, eta baita ere egun hauetan jaso ditugun babesa eta maitasun adierazpen guztiak.

Etxarri Aranatzen, 2017ko maiatzean



Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.

Bidali mezua eskelak@guaixe.eus- era edo hots egin 948 564 275 telefonora

Marmoles San Miguel

Hilariak
Kolunbarioak
Gurutzeak
Estelak
Hilobiak
Panteoiak
Inskripzioak
Grabatuak
Panteioen zaharberitze eta garbiketa

948 260 098 - 683 136 423

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

3 LANA/NEGOZIOAK

5 IBILGAILUAK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

4 DENETARIK

6 HARREMANAK

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**

Astekarian: Saldu/erosi, errentan eman/hartu, 8€ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

LANA | NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZAK

Arbizuko kanpin-ean bi sorosle behar dira uztaile eta abuzturako. Tel 848 470 922 edo info@campingarbizu.com

Urdiango Udalak begiralea behar du.

Ezinbestekoak EGA (edo baliokidea), eta monitorea titulua. Beste ikasketak batzuk ere kontuan hartuko dira, esaterako magisteritza ikasketak. CV-ak udaletxean jasoko dira.

Arbizuko Udalak 2017ko udako tailerretarako, aisialdiko begiraleak kontratatu nahi ditu.

Informazio gehiago info@arbizu.eus edo 948 46 00 17 telefonon.

HIGIEZINAK

LOKALA

ERRENTAN EMAN

Lizarragako elkarteak. Elkarteak alokatzen da San Adrian jaietan (ekainaren 17tik 19ra). Enkantea ekainaren 4an eguerdiko 12:00etan izango da. Gutxienez 600 €.

EREMUA

ERRENTAN EMAN

Urdiango igerilekuak hartzeko interesatu guztiak, ekainak 1ean, ostegunean, arratsaldeko 20:30ean Aitziber elkartearen aurkeztu beharko dira. Talde bakoitzak bere ideia programa entregatu eta aurkeztu beharko du. Interesatuak gurekin kontaktuan jartzeko aitziberelkatea@gmail.com -en bidez. Junta.

OHARRAK

Olatzagutiko irakurle taldea. Amity Gaige-ren Las Buenas intenciones liburua hizketatzeko elkartzeko da garagarriaren 9an, 21:00etan, Olatzagutiko liburutegian.

Odol-emaileak. Lakuntza: ekainaren 5ean, 17:00-20:30

Bakaikuko Gure Esku Dago.

Argazki erakusketak prestatzen ari da. Giza katetik Bakaikuko herri galdeketa bitartean egindakoen argazkirik duten bakaikuko@gureeskudago.eus- e postara edo 634 451 040 telefonora bidaltzeko eskatu du.

Literatura irteera. Garagarriaren 4an, igandean, Zugarramurdira joateko txangoa eta bazkaria antolatuko du Arkatz liburudendak. Ibon Martin idazlearekin

batera El último akelarre liburuko parajeak ezagutzeko aukera izanen da. Altsasuko liburu-dendan eman behar da izena. 30 €.

Etxarri Aranazko irakurle taldea.

Garagarriaren 8an, ostegunean, 19:00etan, Etxarri Aranazko liburutegian elkartzeko da Miren Gorrotxategiren 33 ezkil liburua hizketatzeko.

Otaiko ermitaren alde.

Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko dituzte.

Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua.

Sakanako Enpresarien Elkarteak langabe- eta lan bila dabilenentzako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu,

urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Auzolana Josefina Arregui klinikari. Parte hartu nahi dutenek 948 56

38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezate

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.

Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

Autoenplegurako laguntza.

Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

GoiEner Iruñean.

Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Euskaldun bat euro bat.

Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxauzia gaztelua euskaldunentzat erresuratatu nahi da. Nafararren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa

www.euskaldunbateurobat.com

Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia.

Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarrokoeskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikaastola.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

OPATUTAKOAK

GALDUTAKOAK

Argazki kamara digital txiki bat

Arbizuko Izar Ondo jatetxearen inguruan galdu nuen maiatzaren 7an. Zorro grisa du. Deitu 687 447 915 telefonora.

Altsasuko Udaltzaingoak

Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezesez- rrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, esku- muturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

JAIOTZAK

- Eneko Razkin Aranguren, maiatzaren 23an Arbizun.
- Ekiñe Hualde Moreno, maiatzaren 28an Altsasun.

HERIOTZAK

- Francisca Ijurko Navarro, maiatzaren 23an Lizarragan.
- Julian Lizarraga Larraza, maiatzaren 26an Dorraon.
- Julian Aldasoro Aierbe, maiatzaren 26an Etxarri Aranatzen.
- Juan Goñi Ihabar,, maiatzaren 27an Arbizun
- Ana Maria Navarro Balda, maiatzaren 30ean Lizarragan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

ATLETISMOA

XIII. AITZKOZAR LASTERKETA: Ekainaren 10ean jokatu da XIII. Aitzkozar Lasterketa, Iturmendin. 17:00etan txikien pro-

bak, eta 18:30ean, aldiz, helduena (8,1 km). Izena ematea zabalik dago www.dantzaleku-sakana.com web gunean.

Pilota

Bergeraren eta Ongayren aukera

Irurtzun Txapelketan senior mailako finalerdiak daude jokoan

Afizionatuen mailako Irurtzun Pilota Txapelketa azken txanpan dago. Hurrengo egunotan senior mailako finalerdiak egongo dira jokoan. Bergera arruazuarra eta Ongay satrustegierra dira gure ordezkariak. Ea final handirako sailkatzen diren.

Irurtzun txapelketa. Promesen mailako finalerdiak emaitzak:

Osa-Ruiz de Larramendi 21 / Gil-Garatea 22
Nazabal-Arbizu 12 / Canabal-Cordon 22

Irurtzun Txapelketa Senior mailako finalerdiak

Ostiralean, 19:30ean:

Benjaminak: Nagore-Laso / Yaben-Amiano

Senior mailako finalerdia: Santxo-Bergera / Ojuel-Altuna

Asteartean, 19:30ean:

Benjaminak: Yaben-Etxeberria / Nagore-Okiñena

Senior mailako finalerdia: Ongay-Azanza / Urbietta-Mariezcurrrena

Irristaketa

Ioseba Fernandez Espainiako Zirkutu Txapelketako gorenean

Urrezko domina lortu zuen 100 m esprintean eta 435 m esprintean eta Cristina Aldeano seigarrena izan zen 100 m esprintean

Asteburuan Espainiako Zirkuitu Txapelketa jokatu zen Betanzosen, junior eta senior mailan. Senior mailan Berrero Ere taldeko Ioseba Fernandezek belozista bikaina izaten jarraitzen duela erakutsi zuen, Iturmendikoa azkarrena izan baitzen 100 m esprintean (9,709) eta 435 m (45,206) esprintean. Cristina Aldeano altsasuarrak ere maila ona eman zuen eta seigarrena sailkatu zen 100 m esprintean (11,608).

Sakana Patineko Lapuente, Flores eta Urkizar Zangozako podiumean

Larunbatean 8.

Zangoza Hiria Trofeoa jokatu zen. Sakana Patin Irristaketa taldeko Iratxe Lapuente, Gaizka Flores bigarrena izan zen mini mailan eta Jon Urkizar hirugarrena aurrebenjamin mailan.



Txirrindularitza

Ziordiarren omenaldia Gorka Izagirreri



"Herrian egindako ongi-etorriarekin oso pozik nago. Ez nuen espero" adierazi zuen txirrindulariak

Omenaldi eta ongi etorri beroa jaso zuen astelehen arratsaldean Gorka Izagirrek Ziordian. Ormaiztegiako urte batzuk daramatza Ziordian bizitzen eta herritarrek eta Udalak ongi etorria prestatu zioten, Girotik itzuli berri. Herritar ugari bildu ziren bertan. Tartean, Giroko 8. etapa irabazi izanagatik zoriondu zuten Izagirre. Alkateak eta herriko txirrindulariek -Asier Ormazabal, Ailetz Lasa eta Izai Igeltz- eta txirrindulari ohi eta egungo zuzendari Jorge Azanzak jantzi zizkioten txapela eta

herriko zapiak, baita emazte eta semei ere, eta oroigarria oparitu zioten. Herriko dantzarien aurreraren ondoren, auzate ederrarekin despeditu zen omenaldia.

Izagirre: "eskertzekoa da"

"Ongi-etorriarekin oso oso pozik nago. Espero ez nuengauz da. Ziordian urte gutxi batzuk daramatzat bizitzen, eta herriak halako ongi-etorria egitea eskertzekoa da" azalduz Guaixeri Izagirrek. Ormaiztegiarraren dako Giro berezia izan da, etapa irabazi izanagatik. "Beti da pozgarria irabaztea, polita. Orain familiarekin egotea tokatzen da" adierazi zuen.

XXXII. Udaberri Trofeoa, igandean Altsasun

Junior mailako proba goizeko 10:30ean abiatuko da

Burunda Txirrindularitza Kluba antolatuta, igandean XXXII. Udaberri Trofeoa jokatu dute junior mailako txirrindulariek Altsasun. Goizeko 10:30ean abiatuko da Foruen plazatik eta juniorrek 86 km-ko lasterketa izanen dute aurrez-aurre.

Txirrindulariek hasieran Ziordiaraino joko dute, buelta hartu eta Olaztitik Altamira igotzeko. Altsa-

sutik jaitsiz, Etxarri Aranatzearaino iritsiko da tropela. Bertan buelta hartu eta Ziordiaraino joango dira berriz txirrindulariak, bigarrenez Olaztitik Altamira igotzeko. Behin jaitsita, Iturmendiaraino iritsiko dira txirrindulariak, han buelta hartu eta atzera ere Ziordiaraino heltzeko. Handik buelta hartuta, Olaztitik hirugarrenez igoko dute Altamira, portua jaitsita Altsasuko helmugaraino iristeko.

Kiroldegia

Bizikletarekin goiz pasa polita egin zuten Etxarrin

Sakanako Mankomunitateko bizikleta festa arrakastatsua izan zen. 90 pertsona inguruk hartu zuten parte bizikleta ibilaldian eta ondorengo festan

Etxarri Aranatzan burutu zen, igandean, Sakanako Mankomunitateak antolatutako bizikleta festa. Tartean, bizikleta ibilaldia, kirol materialaren trukea, herri jolasak eta bizikleta konpontzeko tailerra antolatu ziren.

"Oso oso ongi joan zen dena. Bizikleta ibilaldian 90 pertaide

inguruk hartu zuten parte, familiarak, bereziki, eta Etxarriko paraje ederrak ezagutu genituen, Barranka Txirrindulari Taldeko kideek gidatuta. Munduko hizkuntzen taularen laguntzarekin jolasa egin genuen. Oso dibertigarria izan zen" adierazi du Mankoko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak.

Behin Etxarrira iritsita, auzate osasuntsua izan zen: fruta freskoa, fruitu lehorrak, Irurtzungo



Sakana ezagutu, bizikletan

VII. Sakana-Burunda-Gran Fondo Navarra bizikleta martxan 159 txirrindularik eman dute izena. Goizeko 8:00etan abiatuko dira ibilbide luzeak (160 km) eta 8:30ean ibilbide laburrekoak (118 km)

Barranka Txirrindulari Taldeak, hainbat entitatekin laguntzarekin VII. Sakana-Burunda 2017-Gran Fondo Navarra bizikleta martxa antolatu du bihar, larunbatean, Altsasun. Antolakuntzak bi ibilbide antolatu ditu, luzea (160 km) eta ibilbide laburra (118 km). Dagoeneko 159 txirrindularik eman dute izena eta guztiak goizeko 8:00etan abiatuko dira, Altsasutik. Proba ez lehiakorra da; bizikletaz gozatuz Sakanako paraje ederretatik barna buelta eman eta goiz ederra pasatzea da asmoa, Altsasuko helmugara iritsi eta gero, bapo bazkaltzeko.

Aurtengo ibilbidean aldaketa nabarmenak egin ditu antolakuntzak. Esaterako, hasieran ez dira Urbasara joango, orain arte egiten zen bezala. Altsasutik San Pedro-rantz joko dute hasieran, bertatik Urdiainera iristeko. Ondoren, Etxarriaraino joango dira eta bertatik Lizarragako bidea hartuko dute, portua igo eta Arbizura jaitsiz. Aurrera eginez, Uhartea Arakilen San Migel igoko dute -proba ez lehiakorra da, baina igoera kronometratzen da-. Ondoren, Lekunbe-

rrira jaitsiko dira, handik Irurtzuna joko dute eta bertatik Aizpuna, Arizaletara eta Lezaunera, Lizarragako portua jaitsi eta Altsasuko bidea hartzeko.

Ibilbide motzean, aldiz, Uhartea Arakiletik zuzenean Irurtzuna joko dute, Aralar santutegira igo gabe, eta ondoren, luzeak ibilbide berbera egingo dute.

Ibilbide luzeak goizeko 8:00etan ekingo diote biderei eta laburrekoak, aldiz, 8:30ean. Behin helmugara iritsita, guztiak kamiseta jasoko dute opari eta Altsasuko plazan bapo bazkaltzeko aukera izango dute. Bestalde, txirrindularien artean opariak zozketatuko ditu antolakuntzak.

barrankatt.com

Sakana-Burunda 2017-Gran Fondo Navarra probako informazio guztia: ibilbideak, perfilak, rutometroak, araudia, argazkiak eta beste.

Igor Arrieta bigarrena Murieta

Kadeteetan, Intersport Irabiako Igor Arrieta bigarrena izan zen Murieta, eta Quesos Albenizko Iker Mintegi bosgarrena. Irabia izan zen talderik onena.



emakume batek prestatutako marokoar erako pastak... Ondoren, pirrinkelarekin jolasteko aukera izan zen eta Muruzabaleko Joxiren eta Berribikes-eko Joa-

kinen eskutik bizikleta konpontzeko tailerrean parte hartzeko aukera izan zen. Marrazki eta euskarazko ipuinen txokoa eta trukeko txokoa ere zabalik egon ziren.

Atletismoa

Mercero, berriro Espainiako podiumean

Joxemari Mercero saso betean jarraitzen du. Unanuko korrikalari beterranoak Espainiako 10 Km Errepideko Txapelketan parte hartu zuen maiatzaren 21ean, Santanderren. Beremailan, 75 urtetik gorakoan, bigarrena sailkatu zen Mercero, Santoña korrikalari baten atzetik.

Gimnasia erritmikoa

Iskizak bi erakustaldi egingo ditu asteburuan

Ostiralean, 17:30ean Zelandin, eta igandean, 12:00etan, Iortian

Iskiza Sakana gimnasia erritmikoko taldeak bi erakustaldi egingo ditu asteburuan. Batetik, ikasturte bukarako erakustaldia prestatu dute ostiralerako, ekainaren 2an, 17:30ean, Zelandin. Horretaz gain, igandean, 12:00etan, erakustaldi berezia egingen dute Altsasuko Iortia Kultur Gunean.

Botxa

Abian da Iratxo Botxa Txapelketa

Aurreko asteburuan hasi zen eta ekainaren 17an jokatu dira finalak

Irurtzango Iratxo elkarteko botxategian bada mugimendurik. Aurreko asteburuan hasi zen 2017ko Iratxo Botxa Txapelketa.

Iratxo Botxa Txapelketa. Asteburuko partidak:

Ostiralean

19:00etan: AHT-rik Ez / Xabier-Migel-Joana

20:15ean: Tximeleta / Edurne-Txutxurrin-X

Larunbatean

19:00etan: Desesperados / Lirainak

20:15ean: Tximeleta / Desesperados

Igandean

19:00etan: Xabier-Migel-Joana / Lirainak

20:15ean: AHTrik Ez / Edurne-Txutxurrin-X

Pilota

San Migel Txapelketa. 4. jardunaldia:

Ostiralean, 20:30ean

3.maila: Ion-Imanol/Grados-Markinez

2.maila: Gelbenzu anaiak / Ruiz de Azua aita-semeak

1.maila: Lz de Zubiria-Gartziandia / Iñigo-Eñaut

Larunbatean, 17:00etan

3.maila: Iregi anaiak / Imanol-Mikel

2.maila: Flores-Martinez / Berat-Borrega

1.maila: Zelaia-Grados / Ioseba-Unai

Areto futbola

Imanol, entrenatzaile onena eta Magna Gurpea Xota, talde errebelazioa

Uztailaren 1ean jasoko dituzte sariak

Areto Futboleko Entrenatzaileen Elkarteak 2016-2017 denboraldiko sarituen berri eman du. Tartean, bi sari etorri dira Xota klubera: Imanol Arregik ligako entrenatzaile onena izendatu dute eta Magna Gurpea Xota, ligako talde errebelazioa. Uztailaren 1ean jasoko dituzte sariak.

Imanol Arregik pozik egoteko arrazoi asko ditu. Denboraldi bikaina egin du bere taldeak. Espainiako Kopan finalerdietan erori zen, Errege Kopako txapeldunordea izan da eta ligako titulua erabakitzeke play-offetarako sailkatu ondoren, play-offetako finalerdietara iritsi zen. Tamalez, ez da finalean egongo, Movistar Interrek finalerdietan irabazi diolako. "Denboraldiko balantzea ezinhobea da. Ez dago hitzik denboraldi honetan bizi izan dugun guztia deskribatzeko.



Lesioak zigortu gaituzte baina egoera konplikatuei buelta emateko kapaza izan da taldea. Jokalarien konpromisoa, hori izan da gakoa. Jokalariak egin duten esfortzua ikaragarria izan da" adierazi du Irurtzango teknikariak.

Imanol Arregik hirugarrenez jasoko du entrenatzaile onenaren saria. 2013an eta 2014an ere teknikari onena izendatu zuten. Lehen mailako areto futboleko izar handietako bat da irurtzundarra.

Atletismoa



Txikiak euren motorrekin parte hartu zuten proban.

Binakako lasterketan motoak nobedade

250 korrikalari inguruk hartu zuten parte Andra Mari ikastolaren IV. Binakako Lasterketa-Naparpellet Sarian. Txikiak euren motoak probatu zituzten.

Andra Mari ikastolaren IV. Binakako Lasterketa-Naparpellet Saria jokatu zen larunbat arratsaldean Etxarri Aranatzan. Kategoria edo adin ezberdinak kontuan hartuta, guztira 5 lasterketa jokatu ziren.

Haur bakoitzak heldu batekin parte hartu zuen, eta Lehen Hezkuntzako 5. mailatik gorakoek, aldiz, euren artean bikotea osatu aritu ziren. Kategoria guztiak kontuan hartuta 250 partaide inguru izan zituen ikastolako proba ez lehiakorrak. "Giro ederra izatenda, gurasoak umeekin elkarrekin korrika ibiltzeko giro berezia sortzen du" nabarmendu du ikastolako guraso Amaia Gerrikagoitiak, aldi berean Mank-eko kirol teknikaria denak.

Aurtengon nobedade txikiak dako, 2 eta 4 urte bitartekoendako

Molto Lasterketa izan zen, motor lasterketa. Txikiak euren motoekin 100m-ko ibilbidea osatu zuten. "Oso polita izan zen" gaineratu du Gerrikagoitiak.

Bizikletaren erabilpena sustapena

Nagusien proban Etxarriko plaza Andra Mari ikastola berri joan behar zuten eta bertatik buelta. Porra bat egin zuten: herriatik ikastolara dagoen distantzia zenbat zen esan eta bizikletan zenbat denbora kostatzen den kalkulatzea. "Helburua, herriatik ikastolara bizikletan joatea sustatzea da. Porrako irabazleak Ezkurdia kamiseta eraman zuten operari. Horretaz gain, helduenen partaidetza sustatzeko zortzinaka apuntatzen zirenen artean Urbasa Abenturarako sarrerak zozketatu genituen" aipatu digute. Bukarera, gurasoak ikasleekin kontra lehiatu ziren sokatiran eta jai borobiltzeko auzatea egon zen.

Futbola

Nafarroa vs Gasteizko Aurrera, emakumeak Etxarri

Larunbatean, 16:00etan, San Donato futbol zelaian

Etxarri Aranazko futbol taldeak emakumeen futbola ekarriko du larunbatean San Donato zelaia. 16 urtetik azpiko Nafarroako selekzioa Gasteizko Aurreraren kontra lehiatuko da. Partida bihar jokatu da, 16:00etan, San Donato zelaian.



azpiko selekzioarekin. Irati Igoa etxarriarra orain 18 urtez azpiko Nafarroako selekzioan dago eta ezin izango da jaioterrian aritu.

Irati eta Aroa

Aroa Cerezo jokalaririk onenak izango du Nafarroako 16 urtez



Zalduak Kopan aurrera



Igandean Bidezarra izango dute aurkari arakildarrek

Elomendiko Futbol Txapelketan Zaldua hirugarrena sailkatu eta gero, Elomendiko Kopari ekin diote aurkari arakildarrek. Kopako lehen jar-

dunaldian Modernillo taldeari 2 eta 5 irabazi zion Zalduak. Hortaz, Kopan aurrera egin dute aurkari arakildarrek. Hurrengo jardunaldian, igandean, Bidezarra izango du aurkari Zalduak.

Etxarri Hendaian txapeldun



Asteburuan jokatu da Hendaian Futbol 7 Torneo ezaguna. Euskal Herriko talde asko lehiatzen dira bertan. Etxarri taldea orain arte

final laurdenetatik ez da pasa izan, baina aurten finalerako sailkatu ziren. Final estuan, Iruñeko Harresi taldeari 3 eta 0 irabazi zioten.



Altsasuk Kopari agur

Erregionaleko Kopako finalerdietako itzuliko partidaren bina berdindu zuten Urantziarekin eta Los Arcosekoko taldea sailkatu da finalerako

Erregionaleko Kopako ametsa finalerdietaraino iritsi da. Nahiz eta maila bikaina eta primerako itxura eman, gorritxoek ezin izan zuten Los Arcosekoko Urantzia taldea gainditu. Finalerdietako joaneko partidaren 1 eta 2 irabazi zuten Urantziak. Itzuliko partidaren bikain jokatu zuten Joseba Bakaikoaren mutilek eta Josebak aurreratu zuten Altsasu. Bana berdindu zuten Urantziak baina lokin Lobok Altsasu aurreratu zuten berriz. Animoso zeuden altsasuarrek, 1 eta 2 koarekin Kopako finalerdia berdindu baitzuten, baina partida bukatzean zelabina berdindu zuten Urantziak eta finalerako txartela lortu.



I. Ziordiko Futbol Txapelketa

Asteburuan Ziordiko txapelketako 4. jardunaldia egongo da jokoan.

Ziordiko Txapelketa. Aurreko asteburuko emaitzak:

Auzomotojorik 8 - Dia Ibaia 9
Aralar Mendi 3 - Ziordia 8
Futsal Sakana 5 - Ingenierias Iradi 5
Atsedena: Los Suaves

I. Ziordiko Txapelketa. 4. jardunaldia

Ostiralean, 19:30ean:
Ziordia - Ingenierias Iradi
Asteazkenean, 20:15ean:
Futsal Sakana - Auzomotojorik
Los Suaves - Dia Ibaia (atzeratuta)
Atsedena: Aralar Mendi

Parapentea

Sakana, hegan



Denetarikoko ekintzak antolatu dituzte Iturmendin. CARLOS ANTOÑANZAS DE MIGEL

Sakana Parapente Eguna antolatu du Baiza Parapente Taldeak, bihar, ekainaren 3an, Iturmendin. Goizeko 9:00etatik hasita gauako ordu txikiak arte, denetarikoko ekintzak izanen dira.

Parapentearekin hegan egitea maite dutenek hitzordu garrantzitsua dute asteburuan. Izan ere, Baiza Parapente Taldeak antolatuta, larunbatean, goizeko 9:00etatik aurrera, Sakana Parapente Eguna ospatuko da Iturmendin eta Saka-

nako zeru zabalean.

Hegan egiteaz gain, bertako produktuen azoka eta parapente bantzaileen erakusketa antolatu dituzte Iturmendin, hamaiketako, afari herrikoia, kontzertuak eta beste. Guztia prestatzeko makina bat babesleren laguntza izan du Baiza Parapente Taldeak eta horregatik oso eskertuta daude.

Goizetik arratsaldera arte

hegan egitea, hori da Iturmendin bilduko diren asmo nagusia, eta horretarako eguraldia eta haizea lagun izatea, ez dute besterik eskatzen. Sakana Parapente Eguna Euskal Herriko parapente topaketa hobereen artean dago, urte-urtera pilotu eta zale gehiago erakartzen baititu. Iaz 100 parapentelari baino gehiago bildu ziren; eguraldiaren arabera izanen da aurten.

Lehen hegaldi saiotik hasita, zer jan eta edan egongo da Iturmendin, ilunabarrera bitartean. Bestalde, Santa Marinara edo Aralarra, aireeratze guneetara igotzeko gidatuak izanen dira, eta aireeratze guneetara garraio etengabea. Horretaz gain, parte hartzaileen artean opari bikainak zozketatuko dira.

Akanpatzeko aukera

Sakana Parapente Eguna etortzen direnendako aste bukaera osorako akanpatzeko tokia izango da.

Sakana Parapente Eguna, maiatzak 40

Ekainaren 3an, larunbatean 9:00etan: Izena ematea Iturmendiko Aitzkozar elkartearen.
10:00etan: Lehen erremontea edota gidatutako oinezko igoera.
11:30ean: Non Stop hamaiketako.
20:00etan: Kontzertua.
21:30ean: Afari herrikoia eta zozketak
23:30ean: Kontzertuak Iturmendin: Z.I.N.T.Z, La Inkilina, Dentera, Unnables-Innombables.

Axio Aranburu gogoan

Iazko agorriaren 8an zendu zen Axio Aranburu Zurutuza, mendizale eta parapentelari altsasuar gaztea, 31 urte zituela, Frantziako Alpetako Ecrins mendilerroan eskalatzeko ari zela. Euren taldekide eta laguna gogoan izan dute Baiza Parapente Taldekoek eta aurtengo karatelean bere argazkia agertzen da.

Mendi lasterketak

Munarriz eta Maiza, lehen sakandarrak Zegaman

Zegama-Aizkorri km bertikalean Mikel Rubio 24.a sailkatu zen eta Zegama-Aizkorri juniorrean Asier Reparaz 29.a

Sakandarrak Zegama-Aizkorri mendi maratoian (42,195 km)

| | |
|-------------------------------|---------|
| 1.Stian Angermund (Adfad): | 3:45:08 |
| 79.Aritz Munarriz (Etx): | 4:40:54 |
| 80.Joxeja Maiza (Etx): | 4:40:56 |
| 91.Aritz Ganboa (Arru): | 4:44:55 |
| 120.Juanjo Goikoetxea (Uhar): | 4:52:07 |
| 296.Joxan Salgado (Alts): | 5:57:08 |
| 341.Aitor Salinas (Etx): | 6:22:30 |

Sakandarrak Zegama-Aizkorri juniorrean (10,4 km)

| | |
|----------------------------|---------|
| 1.Nicolas Molina (Dúrcal): | 46:04 |
| 29.Asier Reparaz (Arb): | 55:56 |
| 52.Joseba Galarza (Iturm): | 1:01:20 |
| 55.Ander Rosado (Arb): | 1:01:37 |

Sakandarrak Zegama-Aizkorri KV-ean (3,2 km)

| | |
|----------------------------|-------|
| 1.Stian Angermund (Adfad): | 34:55 |
| 24.Mikel Rubio (Irur): | 42:54 |
| 97.Fran Araña (Arb): | 52:05 |



Munarriz, txalo artean gora. TXIRBIL

Zegama-Aizkorri mendi maratoia (42,195) ikusgarria eta arrakastatsua izan zen beste behin. Aratz, Santi Spiritu, Aizkorri, Urbia eta Andraitz ikusgarriak gainditu behar izan zituzten korrikalariek. Aurten eguzkia eta hego haize nahasia izan zituzten bidaide, eta lasterketako maldatan bildutako jendetzaren animuak lagun osatu zuten bidea. Tarte batzuetan, Tourraren antzera, zaleek osutako pasillo estetik igotzeko lanak izan zituzten.

Stian Angermund (Adfad) izan zen probako jauna eta jabea (3:45:08). Ostiral arratsean Zegama-Aizkorri kilometro bertikalean aritu zen Angermund, proba irabaziz, baina iganderako fresko-fresko zegoen eta irabazi zuen, lasterketa ikusgarria egin eta errekorra 3 minutu pasatan hobetuz. Lehen euskalduna Aritz Egea izan zen, proban laugarrena (3:55:41). Emakumezkoetan, Maite Maiora izan

zen txapeldun handia (4:34:27) errekorra ia 4 minututan hobetuz.

Sei sakandarrek lortu zuten maratoia bukatzea. Aritz Munarriz 79.a iritsi zen helmugara (4:40:54) eta Joxeja Maiza 80.a, 2 segundora (4:40:56). Hainbat korrikalariek ezin izan zuten proba despeditu, Beñat Katarain lakuntzarraren eta Mikel Satrustegi arruazarraren tartean.

Juniorren proba eta kilometro bertikalean

Maratoiarekin batera Zegama-Aizkorri juniorra (10,4 km) jokatu zen igandean. Asier Reparaz arbizuarra 29.a iritsi zen (55:56). Eta ostiralean jokatuak eta Angermundek irabazitako Zegama-Aizkorri Kilometro Bertikalean (3,2 km) Mikel Rubio irurtzundarra 24.a sailkatu zen (42:54).

Tenisa

Etorkizuneko tenislariak



Tenis Rubor txapelketako finalista batzuk, sariekin. TENIS RUBOR ALTSASU

Tenis Rubor Txapelketa jokatu berri da eta maila ederra eman dute tenisean Altsasun trebatzen diren neska-mutikoei. Aparte jokatuak Super finalean Xabier Bengoetxea izan da txapelduna

Tenis Rubor Altsasu elkarteak Altsasun tenisaren nondik norakak erakusten dituena. Bi talderekin egiten dute lan, tenis eskola, 7 urtetik 16ra urteko neska-mutilek osatutakoa eta hobekuntza taldea, helduena. Aurten 52 neska-mutiko ibili dira tenis eskolan eta 6 helduen taldean. Iratxe Soriano Irigoien eta Iban Chaparro Alfaro dira eskolaz arduratzen direnak. Ricardo Cantero Tenis Rubor elkarteak koordinatzailea da; horretaz gain, bera da helduen talde arduratzen dena eta lehiaketetan parte hartzen duen ikasle baten entrenamenduetan gidatzen dituena.

Tenis pista falta da elkarteak duen gabezi nagusia. Izan ere, klaseak Altsasu Institutuko kirol-pista estalian ematen dituzte, baina Altsasun ez dago tenis pistarik. Tenisean aritu nahi duenak ez du non aritu. Horregatik, Altsasun tenis pista bat behar dela aldarrikatzen dute Tenis Rubor Altsasu Tenis Elkartetik.

Berriki Altsasuko Tenis Rubor 2017 txapelketa jokatu da eta ikasturtean landu dutena erakusteko

aukera bikaina izan dute tenislari gazteek. Partida entrenagarriak izan dira, publiko tenisarekin goza arazi dutenak.

Tenis Rubor 2017 txapelketako finalak

- Benjaminak:** June Lopez txapelduna, Aitor Fernandez 4 eta 1 eta 4 eta 0 irabazita
- Haurrak, emakumeak:** Nora Domingo txapelduna, Nerea Verari 6 eta 4, 3 eta 6 eta 6 eta 2 irabazita
- Haurrak, gizonak:** Jon Cano txapelduna, Gorka Gasco 0 eta 6 eta 1 eta 6 irabazita
- Kadeteak, emakumezkoak:** Nerea Arellano txapelduna, Udane Valdiviesori 6 eta 4, 3 eta 6 eta 1 eta 6 irabazita
- Kadeteak, gizonzkoak:** Jon Plissoneau txapelduna, Oier Gastesiri 3 eta 6 eta 3 eta 6 irabazita

Super finalean Xabier Bengoetxea txapelduna

Tenis Rubor 2017 Txapelketako kadeteen mailako txapeldunak, Jon Plissoneauk, haur mailako Nafarroako tenis torneo eta txapelketetan lehiatzen den Xabier Bengoetxea izan zuen arerio, asteburuan, Tenis Ruborrek antolatutako Super Finalean. Aurreko urtean ere arerioak izan ziren Plissoneau eta Bengoetxea haurren mailan, eta orduan ziorriarra izan zen txapelduna (6 eta 4 eta 6 eta 4). Aurtengo Super finalean ere emaitza horrekin irabazi zion Bengoetxeak Plissoneauri, partida bikainean.

Non erabili

HOTEL OLATZEA

ARBIZU

Eguneko menuarekin, kafea doan, menu bereziarekin, txupittoa doan.

ETXARRI HORTZ KLINIKA

ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua garbiketetan.

LURESU

ALTSASU

%10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

NORTE ERLOJUDENDA

ALTSASU

%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan salbu.

MENDIGAIN URDEIAZPIKOAK

LAKUNTZA

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

URREZKOA BITXIDENDA

IRURTZUN

Bitxietan 100 €ko erosketa egitean, %10eko deskontua.

ETXARRI KOMERTZIALA

ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua menpekotasun altzarrietan.

ARKANGOA TABERNA

ALTSASU

Postrea edo kopa doakoa.

GIXANE ESTETIZISTA

ALTSASU

Produktua opari.

PINPILINPAUSA

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketara.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€ 948 564 275

kultura >>

Etxeberria Erdialde lehiaketan saritua



Miranda Argako Euskaren Lagunak elkarteak Erdialdenarrazio laburreko 10 lehiaketa antolatu du aurtan. Larunbatean Euskaren Egunaren ospakizunen barruan, saria banaketa egin zuten. Aurreneko saria Haritz Larragueta Martinezek jaso zuen *Minks eta biok* narrazioaga-

tik. Izaskun Etxeberria Zufiaurre bigarrena izan zen, *Lurantzua* idazlanarekin. Emakumezko behartsu baten zamen inguruko kontakizuna da altsasuarrari saritu diotena. Etxeberriak lehiaketara aurkeztutako narrazioa antolatzaileen blogean irakurgai dago, www.euskarenlagunak.wordpress.com.

Eskola Bertsoan proiektua jendaurreko saioarekin despeditu da



Urdiaingo herri eskolak bertso-saioa antolatu zuen ostiralerako. Herriaren etxeko auzogela beteta zela, ikasleek eskolan sortutakoa aurkeztu zuten. Izan ere, otsailtik maiatzera bitartean bertsoak egiten eta hizkuntzarekin jolasten aritu dira. Urdiaindarek ikasleen bertsoeta koplekin gozatzeko aukera izan

zuten. Baina ezziren bakarrik aritu. Oihana Iguaran Amasako bertsolaria aldamenean izan baitzuten. Haren laguntzarekin, “hainbat doinu, gai eta ariketa entzun eta ikusi ahal izan ziren”, jakinarazi digute eskolatik. Ordu eta erdiko saioa osatu zuten guztien artean, “saio atsegin eta arina, egitasmoak merezi bezalakoa”.

Arretxek literatura-hauteskundeetako saria jaso du



Liburuaren eguna dela eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak (NIE) Juul literatura-hauteskundeak antolatzen ditu. NIEren ekimenak ikasleen artean irakurzaletasuna sustatzea du helburu. Haiek euren botoen bidez gogoko idazle eta ilustratzaileak aukeratzen dituzte. DBHko ikasleen artean Jon Arretxe Arbizuaren *Beti iparralderantz* (2014, Erein) liburua dago. Ikasleak hautatutako sortzaileek Lesakan jaso zituzten euren sariak herenegun, Arretxe bera tartean.

Otadiako ermitaren aldeko kontzertua

Larunbatean, 20:45ean, Altsasuko elizan. Entzuleek saskitan utzitako dirua ermitaren konponketara bideratuko da

Otadiko Kristo Deuna ermitako bobeda kendu eta teilatua konpontzeko lanek 70.000 euroko aurrekontua izanen dute. Parrokiak ez du diru hori eta kontu korranteak zabaldu ditu nahi dutenek ekarpena egin deza-

ten. Konponketa lan horiek laguntzeko euren ekarpena egin nahi izan dute abeslari batzuk eta kontzertua eskainiko dute bihar.

Etxarri Aranazko musika eskolako kantu ikasle diren Anjel Mari Urrestarazuk, Olibi Galparsorok eta Juli Alvarok parte hartuko dute. Haiekin batera, euren irakasle Itziar Imaz, baita azken horren Donostiako hiru lagun



ere. Guztiak bakarka eta taldeka ariko dira. Abeslari taldeak musika sakrokopiez eskainiko ditu. Eta gero, bakarlarri gisa, Euskal Herriko eta Hego Amerikako fol-

klore eta herri kantuak eskainiko dituzte. Abeslari gehiagok parte hartzeko asmoa azaldu zuen, baina datengatik ezin izan dute parte hartu.

Gonzalez Aziluz Orfeoien eta ACCPren jardunaldietan



Iruñeko Orfeoien eta Iruñeko Ganbera Abesbatzak (ACCP) Fernando Remacha eta Agustin Gonzalez Azilu konposatzaileei kontzertu bana eskainiko diete aurtan. Emanaldi horietan sortzaileen obra nabarmenetako bana eskainiko dituzte. Eta egiten ari diren ahaleginari balioa aitortzeko Nafarroako abesbatza ondarea ezagutarazteko programa osatu dute. Emanaldiekin batera, hitzaldiak eta NUPen uda-ikastaro batek osatuko dute egitaraua.

Prestatu duten programa Altsasun despedituko da. Herriko seme Agustin Gonzalez Aziluk *Arrano Beltza* obra Iruñean mustu zuen duela 40 urte. Iruñeko Ganbera Abesbatzak obra hori Altsasun eskainiko du azaroaren 3an. Aurretik Koldo Pastor konposatzaileak eta Gonzalez Azilu berak hitzaldia eskainiko dute. David Galvezek musika garaikideari buruzko tailerra eskainiko du ere, lastailean.

Nazabal arte eskolaren uzta lortian

Garagarriaren 4ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara

“Lan interesanteak, gaia edo teknikagatik desberdinak direnak aukeratzen ditugu. Batzuetan ikasleak. Besteetan nik gogorarazten nion egin zuen lan hura. Edo ikaskideek”. Horrela osatu da Itziar Nazabal arte eskolako ikasleen erakusketa. Iortia kultur gunetik pasatzen denak teknika, estilo, gai, tamaina eta kolore aldetik desberdinak erabiliz sortutako margolan sorta zabalarekin gozatzeko aukera izanen du.

Nazabalek esan digunez, “ikasleak ohikoaz aparte beste teknikak ikasi eta saltseatzeko prest daude. Hasieratik izan da horrela. Plaze-

ra da horrela segitzea”. Izan ere, koadro konposatuak direla, teknika nahasi ugariak direla, bestelakoak direla, “horrek ikasleak trebatzea dakar”. Haurren txokoa bat bada erakusketan. Txikienak grabatu teknika ikas zezaten nahi izan zuen eta horretarako Pablo Picassoren *Gernika* obraren inguruan lanketa berezia egin zuten, obraren urteurrena aitzakia hartuta. Nazabal ikasle guztiekin saiatzen delako plastikaz aparte arte-historia pixka bat erakusten.

Erakusketan Arbizu eta Olatzagutia bitarteko adin guztietako emakumezko margolarien lanak daude ikusgai, “dauden gizonezkoak aurtan ezin izan dutelako”. Nazabalek Andra Mari ikastolan eskolaz kanpoko klaseak ematen ditu eta heldu den urtean hango lanak



ere erakutsi nahi lituzke. Ikusgai daudenen artean batzuk hariztian zuzenean margotzeko joan den udan

egindako ikastarokoak dira. Ongi ateratako esperientzia aurtan errepikatzeko asmoa du.

Embajadakoak grabatzeko presarik gabe



Sakanako Pop-Rock Lehiaketan saritutako hiru taldeetatik www.guaixe.eus-en online elkarrizketetan parte hartzen azkenak Embajada taldekoak izan dira. Lakuntzako taldeko Fernando Jimenez Jimenez, Mikel Flores Ruiz eta Ibai Lanz Betelu izan ziren web orriko irakurleek bidalitako galderei erantzuten herenegun. Barre artean haiek ikustea “embajada” bat dela eta izena hortik heldu dela adierazi zuten.

Euren musika ibilbidearen berri eman zuten gaur egun laurak batzen dituen proiektura arteko bidea. Musika asko gustatzen zaiela aitortu zuten. Lakuntzako hiltegi zaharreko lokaletan hasi baziren ere, nahiago izan dute lokal propioa sortu, araudi eta bestelakoez mugatuta ez egoteko. Hala ere, aitortu dute hiltegia

zenak haiendako “oso garrantzitsua, behar beharrezkoa” izan zela The Sekta garaietan. “Osogarrantzitsua da herrian lokal publiko bat egotea, guk lokalik gabe ez genuke talderik egingen”. Eta gaineratu dutenez, “orain hobe gaudere lokal propioarekin”.

Lehiaketa sortzea “oso ona” izan dela esan zuten Embajadakoek. Arrakastatsua izan dela gaineratu dute. Embajada taldeak grabaziorako 8 ordu eskuratu ditu Josu Erbitiren Drum Groove estudioan. Sariari buruzko inorekin hitz egin ez badute ere, kanta bat grabatzeko asmoa zuten. Euren kantuak grabatzeko “aukera izatean” grabatuko dituztela eta “presarik ez” dutela jakinarazi zuten. Bitartean udarako hainbat kontzertu lotuta dituztela jakinarazi dute.

Festetako kartel iragarlea aukeratzeko lehiaketa Arbizun

San Juan festak iragartzeko Arbizuko Udalak kartel lehiaketa antolatatu du, bi maiiletan, helduena eta haurrena. Bietan ere testu bera agertu beharko da lan guztietan: Arbizuko San Juanak 2017 ekainaren 23tik 29ra. Jakina, lehiaketa parte hartzen duten guztiek Arbizuko festekin zerikusia duten gaiak aukeratu beharko dituzte ilustraziorako.

Helduen mailan parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ditzake. Haien neurria A3koa izanen da eta edozein teknika erabili ahalko da. Haurren mailari dagokionez, ikasturte

honetan Lehen Hezkuntzan eta DBHko 1. eta 2. mailan ikasten ari diren haur arbizuar guztiek parte hartu dezakete. Kartulina batean marraztu beharko dute (50x60 cm) txikiak, nahi duten materiala erabiliz.

Lanak astegunetan, goizez, udaltxeko idazkaritzan, eta, arratsaldean, liburutegian aurkeztu daitezke. Epea astelehenean 14:00etan despedituko da. Lanak plika sistema erabiliz aurkeztu beharko dira. Maila bakoitzean sari bana izanen da, helduendako 150 euro eta haurrendako 50. Argibide gehiago Arbizuko Udalaren web orrian.



Tragedia baztandar bat

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Zarrapastra antzerki taldeak joan den urtean Altsasun jokatzekoa zen *Urtsua, leyenda de luz y niebla* antzezlan. Baina arazo batengatik ezin izan zen. Tarima Beltza antzerki taldearen eskutik berriro programatu dituzte Iortia kultur gunean. Jokatuko duten lanaren oinarria Baztango Urtsuaren kontakizunean oinarrituta dago. Nieves Oteiza Zarrapastrako kidea hartan oinarrituta idatzi zuen antzezlan, gertaera 1700eko garagarriaren 22an eta 23an kokatuta dago. Antzezlanaz zapiez eszena azkarretan garatzen da. Pertsonaiek hizkuntza erraza eta gertukoa erabiltzen dute, poesia baliabideekin batera. Arkaitz Ibarra aktoreak zuzenean musika joko du ere (txistua, txirula eta salterioa).

Arizkungo Urtsua jauregiko



oinordekoa Nafarroa Behereko nobleziako alaba batekin, Lantaina jauregiko Juanarekin, ezkonduko da. San Joan gauaren aurreko egunean bakarren batek Juan haurdun dagoela jakin du. Izututa eta zalantza beteta anaia-arekin hitz egitea erabaki du Juanak. Erabaki azkar bat hartu behar da. Joanari burutik garai-ko arau zorrotzak, San Joan bezperako sinesmenak, sineskeriak

eta beste pasako zaizkio. Bitartean, Xorroxingo ur-saltoan lamiak euren ilea urrezko orraziekin orrazten dute. Agoteak ere agertuko dira. Ezkondu eta egun berean senarrak haurdunaldiaren berri izan zuen. Harrotasunak minduta senarrak emaztea Arizkungo jauregi parean zegoen Santa Ana ermitara otoitz egitera gonbidatu zuen, gauez. Ezpataz, bertan hil zuen emaztea.

Abesti ezagunen bertso lirikoak entzungai

Igandean, 19:00etan, Etxarri Aranazko plazan

Udaberri akabera aldera zuzeneko musika zikloa hartzen du Etxarri Aranazko plazak urtero. Musika eskolako ikasleen emanaldiak abiarazi du aurten zikloa. Haiei txanda Di Sei opera band taldeak hartuko die.

Di Sei

Ahots handiak dituen talde lirikoa da, zuzen-zuzenean abesten duena. Abesti modernoak egiten dituen genero lirikora moldatuak. Di Sei taldeak hiru abeslarik osatzen dute: Nekane Piñuela (sopranoa), Cristina Sevillano (sopranoa) eta Juanjo Bordes (tenorea). Haiekin batera hiru instrumentista aritzen dira: Laura Zudaire (biolina), Eduardo Zudaire (gitarra klasikoa), Iñigo Mikeleiz (akordeoia). Egungo eta aspaldiko kantak abesten dituzte eta egokituta daude ikusle guztiek entzun ditzaten.

Taula gainean deserriaz, migratzaileez



Domekan, 19:00etan, Olatzagutiko kultur etxean

Mañeruko Trapalgán antzerki taldeak Juan Diego Bottoren *Invisibles* antzezlan eskainiko du Olatzagutian. Obrak “elkar ukitzen, nahasten eta erlazioa duten bi gai

ironiaz, umorez eta dramaz jorrazten ditu: erbestea eta migrazioa. Paternalismorik gabe, atsegin ematerik gabe eta topikorik gabe”. Prentsako titularretako zifra eta estatistikaren bidez soilik ezagutzen ditugun pertsonen izen-abizenak jartzen saiatzen dira Trapalganekoak.

BIKAIN GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

3D IKASTAROA

Oinarriko ikastaroa, 3D inprimagailuarekin. Ekainaren, 6tik 28 bitarte. Ordutegia: arratsaldeko 6etatik eta 9ak arte, asteleheneetatik ostegunera. Izen-Ematea C.I.P. SAKANA LH FP I.I.P. Institutuan, Zelai Kalea 89 Altsasu.

Izen-Ematearen lehentasunak:

- Jardunean dauden langileak.
- Langabetuak.
- Izen-ematearen jarraipen ordena.

**Centro Integrado Politécnico
FP SAKANA LH
Ikastetxe Integratu Politeknikoa**

G

asteko >> : eguraldia

| ostirala | larunbata | igandea | astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna |
|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|
| | | | | | | |
| euria: 35% | euria: 75% | euria: 30% | euria: 15% | euria: 10% | euria: 5% | euria: 5% |
| Min: 15 Max: 25 | Min: 15 Max: 17 | Min: 11 Max: 15 | Min: 10 Max: 18 | Min: 11 Max: 23 | Min: 12 Max: 25 | Min: 14 Max: 25 |

: temperatura>>

| | Max. °C | Min. °C | euria l/m ² |
|------------|---------|---------|------------------------|
| Irurtzun | 33.5 | 14 | 9.1 |
| Etxarri A. | 32 | 9.5 | 8.1 |
| Altsasu | 32 | 11.5 | 11.4 |
| Aralar | 25.7 | 8.8 | 8.3 |
| Urbasa | 29 | 7.2 | 14.8 |

: ilargiaren aldia>>

| ilbete | ilbehera | ilberri | ilgora |
|--------|----------|---------|--------|
| | | | |
| 9 | 17 | 24 | 1 |

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 • Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

GARAGARRILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera
Artazako Kanpina: %10eko deskontua
Lacturale: esneki lotea
Gaztezulo: 3 hilabetez doan
Magna Gurpea: 2 sarrera
Aquarium: sarrera bat

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10
Lacturale: esneki lotea
Gaztezulo: 3 hilabetez doan
Magna Gurpea: 2 sarrera
Aquarium: sarrera bat

>> 11 galdera

Aitana De Migel Lopetegi

Errekaleorreko auzokidea

Testua: Maider Betelu Ganboa



Aitana Errekaleorren bizi den lakuntzarra.

1. Zer da Errekaleor?
50. hamarkadan Espainiatik etorzen hasi ziren langile klaseko familiendako sortu zen Gasteizko auzoa da. 196 etxebizitza jaso ziren, 16 eraikinetan. Etxe umilak ziren, baina auzo bizia zen. Euren ekimenez hainbat zerbitzu sortu zituzten: zinema, gizarte etxea... Udalak Errekaleorreko etxeak hustuzeko plan bat hasi zuen. Presioa sartzeko auzoa zokoratu eta abandonatzen hasi ziren. 2010ean Udalak bertan gelditzen ziren 49 bizilagunei etxebizitzak desjabetzeko proiektua eskatu zuen.

2. Orduan ikasle talde batek Errekaleorrera jo zuen, ezta?
2013an ikasle talde bat, 10 inguru, Errekaleorreko 26. atarian sartu zen. Hasieratik, auzokideen artean eta Errekaleor Bizirik proiektuan gaudenon artean harreman ona egon da. Guk egiten dugun apustua da auzoari bizia ematea, berpiztea, bizi ezberdin bat ematea.

3. Zein distantziara dago Gasteiztik?
Zentrotik 20 minutu inguru bizikletan. Hiri garraio zerbitzurik ez du. Duela urte batzuk kendu zuten, auzoa geroz eta gehiago ahultzeko.

4. Zein da egoera, egun?
Une honetan auzo guztia desjabetuta dago, 21 Zabalgunea udal hirigintza agentziarena da. 150 pertsona inguru bizi gara. Nire kasuan, kanpoan egon naiz ikasten eta bueltan, urtarrilean hasi nintzen bertan bizitzen. Baina aurretik auzoko bizitzan parte hartzen nuen.

5. Argindarra kendu dizuete...
Esaten dute segurtasunagatik egin dutela argi mozketa, baina inon-

dik inora, gure elektrizitateak segurtasun kontrolak gaintzen zituen. Jende aditua dago gurekin lanean. Udaletxea ez da etorri ere zuzenean ikustera. Eta borroka honetan gaude.

6. Nola dira etxeak?
Etxe xumeak dira, ezin da ukatu, urte hauetan mantentze lan batzuk ez dituztenez jaso, oraindik gehiago. Baina errehabilitatu ditugu. Gure blokean komunitatean bizi gara, elkarrekin egiten dugu bizitza. Beste batzuk modu pribatuan bizi dira, bakoitza bere etxean. Frontoia dugu, Gasteizko bigarren handiena dena; okindegi bat, guk autogestionatua, baina orain ez, argirik gabe gaudelako; gaztetxea, tabernarekin, kontzertuak, ikastaroak eta beste antolatzeak; zinema; gizarte etxe bat, bertan haur eskola dago eta euskara klaseak eta beste eskaintzen ditugu eta baratza ekologiko handi bat.

7. Errekaleorren zein asmo dauka Udalak?
Plan ezberdinak egon izan dira. 2006an bertan 332 etxebizitza eraikitze proiektua onartu zuen udalak. Gauregun, Gasteizen famatua den Eratzun Berdearen aitzakia erabiliz, esaten dutena da Errekaleorren baratza ekologikoak egin nahi dituztela, eta horrekin Eratzun Berdea bukatu nahi dutela. Baina guk uste dugu atzean espekulazioa dagoela, bertan etxebizitzak jasotzeko aukera hor egongo dela, Salburuan gertatu den bezala.

8. Argi indar faltaren arazoa konpontzeko zer egingo duzue?
Eguzki plakak jartzeko egitasmo bat martxan dugu. Plan bat egin

dugu, gure energia beharrak zeintzuk diren aztertu eta zenbat plaka behar ditugun kalkulatzeko. Ondoren, plaka horien erosketa finantzatzeko crowdfunding kanpaina bat egingo dugu interneten. Helburua auzoa energetikoki gutiz autosufizientea edo subiraua izatea da, Iberdolaren eta beste multinazionalen menpe ez egoteko.

9. Auzoa hustutzeko asmoarekin aurrera jarraituko du Udalak?
Urtaranean desjabetzearekin mehatxatu gaitu, baina zalantza ditugu. Aurrera jarraituko dugu. Energetikoki subirauak izatea lortzen badugu, kristona litzateke.

10. Gasteizko udal bilkurako idazkaritzak erabaki du Udalak Errekaleorreko argiteri publikoaren hornidura berrezarri behar duela.
EHBilduk, Podemosek eta Irabazik gure alde egin dute udaletxean. Udalak egin duena ilegala da, ezin du hiriko auzo bat argi publikorik gabe utzi. Gauean segurtasun falta dago, puntu beltz bat bihurtu da Errekaleor. Gauean segurtasun txandak egiten ditugu, lapurretak eta beste ekiditeko.

11. Biharko, larunbaterako, manifestazioa deitu duzue.
Guk argi daukagu, Herria bizirik! izango da lelo nagusia, eta hortik aurrera kolektibo eta mugimendu bakoitza bere leloarekin eta aldarrikapenekin joango da. Erakutsi nahi duguna da herria elkarturik dagoela, indartsu dagoela. 17:30ean abiatuko da, Andra Mari Zuri plazatik. Amaiera Errekaleor auzoan izango da, ekitalditxo batekin.
Osorik: www.guiaixe.us

KARTELAK ESKUORRIAK KAMISETAK PUXIKAK ...

badatoz!